

Elgoibar - 1249. zenb.
XXX urtea - 2022-06-24



TOKIKOM

BARREN

ARBASOEN HARPEA



Historiaurrerako atea



Elgoibar BHI

2022-2023 IKASTURTEA
DBHko eta BATXILERGOKo

matrikulazio epea:

ekainaren 20tik
uztailaren 5era

Bulegoko ordutegia:
11:00etatik 13:00etara

DBH eta BATXILERGOA



943 899 316

013431@hezkuntza.net
www.elgoibarbhi.eus

baikara



jaixak ondo pasau!

Aurrez enkargatuz gero hobel!

SAN PEDRO
J A T E T X E A

SAN PEDRO AUZOA
Tel. 943 740 010
ELGOIBAR



Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.
20870 ELGOIBAR - 943 744 112
Publizitatea: 943 743 704
barren@elgoibarkoizarra.eus
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegia, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Sara Iriondo, Asier Guisasaola, Maialen Sanchez. **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.885 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.

 facebook.com/barrenaldizkaria

 twitter.com/barreneus

 instagram.com/barrenaldizkaria

Ane Astiazaran

Itzultzailea

Zer esana



"Gutxi kantatzen zaio orain arte euskaldunek kantatzen zioten horri, gutxi kantatzen da politikatik"

Egun beroak eta gau epelak itzultzearekin batera bueltatu da orduak eta orduak kalean pasatzeko gogoia, festarako grina, berandu afaltzeko ohitura, aurpegi batzuk berriz ezagutzearen plazera, kontzertuen ostean horrenbeste dantza egitearren etxera hankak eta oinak minduta iristea... Azken hilabeteotan goitik behera aldatu dira gure lehentasunak, ahaztu zaigu intzidentzia zer zen, konfinatuta egotea beste mundu bateko zerbait kontsideratzen dugu eta aurtengo udak 2019 hartako bihurri usain berbera du. Hala ere, ezin ahaztu hamaika direla bi urte luze iraun dituen egoera honek utzi(ko) dizkigun ondorioak: batzuk agerikoak, osasun mentala, adibidez; baina badira ia oharkabeen pasako direnak ere, diskurtsoen despolitizazioa kasu.

Musukorik gabeko irribarreak ikusi, aspaldiko lagunei bi muxu eman eta gogoz dantzan aritu naizen kontzertuetan inoiz baino nabariagoa iruditu zait hitz hutsalen erabilera. Ez nuke erantzukizun guztia ikusi (eta gozatu) berri ditudan taldeengan jarri nahi, baina taula gainean egote hutsak ematen duen boterea desbideratzen ari dela iruditzen zait. Jakina da garai politikoak aldatzen ari direla, eta hala erakusten dute egungo euskal talde gehienen letrek ere, gutxi kantatzen zaio orain arte euskaldunek kantatzen zioten horri, gutxi kantatzen da politikatik.

Ez dakit politizazioak beldurra sortzen duen, konfrontazioa ekiditeko modu bat den edo sinpleki ezjakintasuna den, baina argi daukat politikak (aisialdiko) oholtza galdu duela, eta nik behintzat aurkakoa egiten duena babesteko asmoa daukat. Nobedade zaharrez beteriko uda honetan guk geuk erabakiko dugu zeren alde egin apustu. Hitzak ez direlako hitz soil, eta beharrezkoa delako hitzen bitartez posizionatzea. Guztiok baitakigu posizionatzen ez denak zein posizio hartzen duen.

BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

Arregitorretik izarretara

Pasa den domekan, urtebete igaro zen izarren artera joan zinela. Urteurreneko mezan egon nintzen, eta bukaeran, Itziarrekin besarkada estu bat ematean, ezin izan genion negarrari eutsi eta malkoek, musukoa blaitu zidaten. Alde batetik, urtea azkar igaro den sentazioa dut, baina bestetik, hainbeste gauza gertatu dira... Egoera latzean topo egin genuen, eta oraindik ere gogoan dut elkarren ondoan eserita geundela izandako solasaldia. Horrela esaten zenidan: "Lasai hartu. Medikuek diote hau maratoni luze bat dela baina nik uste dut, ultra-trail mendi lasterketa horietako bat dela". Eta biok irribarrez, buruarekin baietz esaten genuen.

Ez dakizu zenbat gustatuko litzaidakeen eskua elkarri emanda helmugara iritsiko bagina. Baina zoritxarrez, gaitz krudel hau, zure gorputza mendean hartuz joan zen pixkanaka-pixkanaka, bere isiltasun bortitzenarekin.

Orain, zure diztirarekin helmugarako bidea argitzen didazu, eta ez naiz iluntasun mamuaren bedur.

Eskerrik asko, Jon, nire gidari eta zaindari izateagatik.

H. C.

Ez Osakidetzaren desegite eta pribatizazioari

EAEko Osasun Sailburua den Gotzone Sagarduik (PNV) hauxe esan berri du: «*Habr  que desplazarse con m s frecuencia, habr  consultorios que est n atendidos por servicios de*

enfermer a y centros que permanecer n cerrados en  pocas como las que se avecinan. Va a ser necesario un cambio cultural y m s movilidad» (sic).

Beraz, zerbitzu batzuk itxi egin eta egingo dituzte, beste batzuk hiriburuetan zentralizatuko, medikuen orde z erizainek atendituko gaituzte beste batzuetan, etab. Besterik nahi? Ba zerbitzu pribatuetara. Deklarazioak horrexegatik egin zituen enpresa pribatuen aurrean, negozio aukera datorkiela esateko.

EH Bilduren ustez, PNV-k egin nahi duena ez da kultura aldaketa bat, osasun sistema publikoa murriztu eta gehiago pribatizatzea baizik.

EH Bilduren galderei erantzunez hauxe Sagarduiren erantzuna: «Ez dago aldaketarik aurretik markatutako estrategian». Baina ez du estrategia hori zein den adierazi. Ez du argitu ere erizainek atenditutako zerbitzuena zer esan nahi duen eta ez du erantzun ezer aldatuko ez bada, zergatik eskatu digun «aldaketa kultural bat».

Bitartean, Elgoibarko anbulatorioko Etengabeko Arreta Gunean egin diren murrizketak zuzendu gabe daude.

Elgoibarko EH Bildu



Fermin Lizarralde Uribe-Etxeberria

2022ko ekainaren 21ean hil zen, 90 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.





Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus 📞 943 744 112 📞 688 634 044



Autopista sarrera inguruan oinezkoentzako bide segurua behar da:

"Autopista sarrera aldamenean dagoen baserrian bizi gara, eta ez daukagu etxera oinez modu seguruan iristeko biderik. Lehen bazegoen bazterbide bat, baina obrak egin zituztenean erriak zabaltzeko, kendu egin zuten. Aita gurpildun aulkian erabiltzen dugu, eta oso arriskutsua egiten zaigu etxerako bidea. Eskertuko genuke Udaleko arduradunen bat gerturatzea, arazoa bertatik bertara ezagutzeko eta irtenbideren bat jartzeko".



Ba al dauka Kirol Patronatuak asmorik tripode gehiago erosteko?

"Joan zen zapatuko beroari aurre egiteko jende askok Mintxetako igerilekua aukeratu zuen. Gu ere joan ginene, eta 12:30erako ez zegoen eguzkitakoentzako tripoderik. Mintxetan ibiltzen den jende kopururako tripode gutxiegi daudela iruditzen zait." Kirol Patronatutik ondorengo erantzun dute: "145 tripode ditugu. Urtero tripode kopurua gehitzen goaz, gero eta jende gehiagok eguzkitakoa erabiltzen duelako. Aste honetan bertan 50 tripode erosi ditugu eta hurrengo astean beste 25 iritsiko zaizkigu". Horrez gain, erabiltzaile batzuk kexu ziren tripodea

harreran eskatu behar delako eta horrek ilara egitera behartzen dituelako, nahiz eta bazkide txartelarekin zuzenean sartzeko aukera eduki. Azken bi urteotan bezala, norberak hartzeko moduan jartzea eskatu dute. Horri erantzun hau eman dio Patronatuko zuzendariak: "Tripodeak, pandemia baino lehenago egiten genuen bezala, harreran hartu eta entregatu behar dira, bertan hobeto jaso, kontrolatu, zaindu eta mantentzen direlako. Bazkideek sarrerarik ordaindu behar ez dutenez eta ilaran itxaroten ez egoteko, harrerako langileek tripode batzuk harrera ondoan lagatzen dituzte, jendea zain egon gabe hartzen joan dadin".



Txalo bat Udal Musika Bandari:

"Zoragarria izan zen zapatuko kontzertua ere. A zelako Udal Musika Banda daukagun Elgoibarren! Herriko Antzokiko kontzertuak bikainak izaten dira, eta horrelako emanaldi bereziak, beste horrenbeste. Segi horrela urte askoan! Eskerrik asko plazer hau guri emateko ahalegina egin duzuen guztioi".



Eneko Loiola eta Igor Iriondo elgoibartarrak saritu dituzte IMH Sarietan



IMH Sariak banatu zituzten joan zen astean, eta guztira bost lagun saritu zituzten, horien artean, Eneko Loiola eta Igor Iriondo elgoibartarrak. Ikasle ohi aipagarrienaren saria jaso du Eneko Loiola Txurrukak, eta aurtengo ikasle elgoibartar aipagarria Igor Iriondo Salegi izan da. IMHtik azaldu dutenez, "ekintzailetzagatik eta egindako ibilbide profesional eredugarriagatik" saritu dute Eneko Loiola. Loiolan enpresako sortzailea eta jabea da Eneko Loiola. 2004an amaitu zituen Goi mailako Produkzio ikasketak IMH Campusen, eta praktikak Etxe-Tarren egin ondoren, bertan jarraitu zuen lanean. Handik Egilera pasatu zen eta ondoren Ormolar, Azkoitiko moldeetako enpresa batera. Ormolan 10 urtez lanean jardun

ondoren aukera ikusi zuen hemengo enpresentzat balio erantsiko mekanizazio enpresa bat sortzeko, eta, zenbait saiakeraren ostean, 2017an eman zuen pausoa. Igor Iriondo Salegik, bestalde, Goi-mailako mekatronika Industrialak ikasi du eta praktikak egin dituen enpresan lanean jarraitzeko asmoa du. Elgoibarko Udalaren oroigarria jaso du aurtengo ikasle aipagarrienaren atalean. Gainerako sarituak hauek izan dira: Enpresatutore aipagarrienaren saria eskuratu du Javier Varela debarrak; Mikel Otaño Jauregi azkoitiarra saritu dute Goi Mailako Heziketa Zikloetako ikasle aipagarrienarentzako sariarekin eta Iñigo Osa Lekube debarra izan da ikasle aipagarriena, Erdi Mailako Heziketa Zikloko ikasleen artean.

Ikasbidaiko errifaren zozketa egin dute

Bigarren Batxilergoko ikasleek errifak saldu dituzte ikasbidairako dirua lortzeko, eta hau da zenbaki sariduna: 4430 (Ordezkoa, 5424). Irabazleak bi

lagunentzako bazkaria izango du saritzat, Belaustegi jatetxean. Bi asteko epea du saria jasotzeko, helbide honetara idatzita: elgoibarbhi04@gmail.com

Udalak eta Gurutze Gorriak hitzarmena sinatu dute, ahulenen ongizatea bermatzeko

Elgoibarko Udalak, Gizarte Zerbitzuen bitartez, 8.000 euroko diru-laguntza emango dio Elgoibarko Gurutze Gorriari bere lana bultzatzeko. Diru-sarrerarik gabeko familia/pertsonak, Diru-sarrerak Bermatzeko errenta baino txikiagoak dituzten familia/pertsonak, udalerrian

errolatutako familiak/pertsonak edo udalerrian bizi diren familiak/pertsonak lagunduko dituzte. Norberaren edo etxeko higienarako produktuak, elikagaiak, eskola materiala edo adingabeentzako erropa erosteko bonoak lagunduko dituzte diruz, besteak beste.

Irati de Anta Elgoibarko Institutuko ikasleak lortu du EAEko notarik onena selektibitatean



Irati de Anta Elgoibar BHI Institutuko ikasleak 10etik 9,98 nota lortu du unibertsitaterako hautapropa azterketan, eta emaitza horri esker, berea izan da EAEko notarik onena, 12.107 ikasleren artean. Maltan ikasbidaian zegoela jaso zuen berria. Aitortu du "asko" ikasi zuela azterketarako, baina hala ere, izan zuela bere zaletasunei tartea egiteko aukerarik. Besteak beste, kirola egiteko eta lagunekin irteteko aukera izan zuela esan du.

Elgoibarko Udalak eta Jubilatuen Biltokiak hitzarmen bat sinatu dute herrian zahartze aktiboaren eskaintza sustatzeko

Elgoibarko Udalak lankidetzeta-hitzarmen bat sinatu du Jubilatuen Biltokiarekin, herrian dagoen zahartze aktiboaren eskaintza sustatzeko asmoz. Hitzarmen horren helburua da diru-laguntza formalizatzea, biltokiaren jarduerak gauzatzeko. Besteak beste, honakoak finantzatzeko dituzte: memoria-tailerrak, prebentzio eta kultura hitzaldiak, zine-forum saioak, teknologia berriak erabiltzeko tailerrak, txangoak, nagusien asteko programazioa edo areto-jokoak, dantza-eskola eta dantza-saioak... Udalak 7.038 €-ko diru-laguntza emango dio Biltokiari jarduera horiek finantzatzeko laguntzeko.

LGTBI+ egunerako elkarretaratzera deitu du Narrutsik talde feministak

Ekainaren 28a LGTBI+ Harrotasunaren Eguna dela-eta, elkarretaratzera deitu du Elgoibarko Narrutsik talde feministak. *Heteroaraua suntsitu, kaleetan harro! eta Transfobiaren aurrean, tinko!* lelopean irtengo dira kalera LGTBI+ pertsonen eskubideak aldarrikatzera, eta borroka egun honetaz egiten den merkantilizazioa salatuz, "harrotasuna ez dagoelako salgai". Elgoibarko transmaribollo guztiak gonbidatu nahi dituzte ekainaren 28an, arratsaldeko 19:00etan, Kalegoen plazan egingo duten elkarretaratzean parte hartzera.

Mintxetako igerilekuetako zenbait erabiltzaileen jarrera desagokiak salatu ditu Udal Kirol Patronatuak

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak salatu du Mintxetako igerilekuetako aldagelen eta dutxen erabilera "desegokia" egiten ari direla zenbait haur eta gazte. Azaldu dutenez, instalakuntzak zikindu eta kaltetzen dituzte paper-bustiz egindako pilotak jaurtiz. "Eskatzen dugu arduraz eta errespetuz jokatzera erabiltzaile guztiek eta zerbitzu publiko hauek guztion artean zaindu eta sustatzea", esan dute Elgoibarko Udal Kirol Patronatutik.



Birziklapena landu dute Elgoibarko ikastetxeetan

MEKA, Elgoibar BHI eta Elgoibarko Ikastola elkarlanean aritu dira Terracycle programan, ikastetxean sortzen diren eskola materialen hondakinak birziklatzen. Programa honen bidez jasotzen diren eskola-materialak beste material batzuk sortzeko erabiltzen dira, parkeetako mahaiak eta aulkiak adibidez. Ikasturte bukaeran, hiru ikastetxeetako materiala bildu eta TerraCycle enpresari entregatuko diete, eta hondakin kantitatearen truke hainbat puntu jasoko dituzte. Hiru ikastetxeen artean erabakiko dute zein erakundetara bideratuko dituzten puntuak.



San Antonio Eguna ospatu zuten Urruzunon

Ekainaren 13an izaten da San Antonio Eguna, eta Urruzuno auzoan ospatu zuten santuaren eguna. Meza egin zuten goizean, eta segidan, mokadutxoa izan zuten. Eguerdian auzotarren arteko bazkaria egin zuten, auzoko elkartean. Antolatzaileek eskerrak eman dizkiete auzolanean lagundu zuten auzotarrei.



Gaurgeroak oporrak hartu ditu irailera arte

Gaurgeroa Pentsiodunen Mugimenduak erabaki du irailaren 19ra arte oporrak hartzea, beraz, udan eten egingo dituzte beraien ekintzak. Jakinarazi dute lau urteko borrokaren ostean, udako oporraldian atseden hartzea erabaki dutela, irailean "indarberrituta eta ilusio handiagoz" itzultzeko. Besteak beste, hauek dira euren aldarrikapenak: Gutxieneko pentsioa 1.080 eurokoa izatea, alarguntza-pentsioa % 100 kobratzea eta KPIaren igoera aplikatzea pentsioetan.

Hileko azken zapatuko feria, bihar

Larunbat honetan, hilaren 25ean, hil bukaerako feria egingo dute, Debemenek eta Udalak antolatuta. 09:00etatik 14:00etara Baserriko produktuen salmenta izango da Kalebarren plazan. 11:00etatik aurrera, aldiz, Urajai elkarteak Elgoibarko baserri eta harategietako produktuekin eginiko pintxoak jarriko ditu salgai Kalebarren plazako txosnan, eta 12:00etatik 14:00etara umeentzako tailerrak egongo dira. Tailer hauen helburua da, besteak beste, Elgoibarko txikienek garaiko produktuak, bertako animaliak eta baserrietako kultura ezagutzea. Eguerditik arratsaldera ganadu erakusketa egingo da Kalebarren plazan.

*“Hezkuntza
Lege Berriaren
zain egon gabe
ere har daitezke
neurri batzuk”*



AMELIA BARQUIN

Kulturarteko hezkuntzan irakaslea

 Ainara Argoitia /  Asier Orbea

Elgoibarko Udalak eta herriko hezkuntza komunitateak Elgoibarko Hezkuntza Mahaia sortu dute, elkarlana sustatzeko, elkarbizitza osasuntsua eta inklusiboa hobetzeko eta hezkuntza beharrei erantzun bateratu bat emateko. Eta horretarako, hezkuntza formaleko eta ez formaleko eragileak elkarrekin ari dira lanean. Joan zen egunean egin zuten ikasturte honetako azkeneko bilera, eta Amelia Barquin Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultateko irakaslea, Kulturarteko hezkuntzan aditua, gonbidatu zuten bertara. Bilera aurretik egindako elkarrizketa duzue hau.

Has gaitezen hasieratik. Zer da integrazioa?

Hemen bizitzea eta gizartearekin harreman positiboak izatea; hau da, egokitzen zaizkigun espazioetan parte hartzea. Baina, jakina, atari bereko bizilagunekin harreman positiboa izateko, lehenengo eta behin, etxebizitza bat behar da bizitzeko, eta etorkinek eta pertsona arrazializatuek sekulako arazoak dituzte alokairuan etxebizitza bat hartzeko. Edo etorkinek eramaten badituzte eskolara seme-alabak eta ikusten badute eskola horretan gainerako ikaskide gehienak ere atzerritarren seme-alabak direla edota ez badira sentitzen eskolako parte, hor ez dago integraziorik.

Garbi izan behar dugu dena ez dagoela etorkinen esku, integrazioa bi norabideko prozesua delako, eta gutxieneko oinarri batzuk behar dituztela, integratu ahal izateko. Bada beste kontu bat ere. Integrazioa da aurrez esandako hori egin ahal izatea, norbere identitateari eta ezaugarriari uko egin beharrik gabe. Izan ere, askotan integrazioa eskatzen dugula esaten dugu, baina egiaz beste zerbait eskatzen ari gara: asimilazioa. Hau da, gizarte hegemonikoaren jarrerak, balioak eta ohiturak har ditzatela eskatzen ari gatzazkie. Nik azpimarratu nahi nuke etorkinak integratzen direla, erraza ez duten arren.

Badugu halako joera bat txar guztiak migranteekin lotzekoa. Ez dute euskara ikasten, ez dute nahi... Behar beste egiten dugu guk esaterako euskara ikasten motibatzeko?

Egia da, bai, oso gutxi direla euskara ikasi duten edo ikasten ari diren etorkin helduak eta horrek euskaldunen artean kezka sortzen duela. Eta egia da, era berean, hizkuntzaren ezagutza izateak ez duela integrazioa bermatzen, baina argi dago ez dagoela integrazio osorik bertako gizartearen hizkuntza jakin ezean. Kontua da gure gizartearen egoera soziolinguistikoa ere berezia dela. Euskal Herriko zati honetan bi hizkuntza daukagu eta euskara hizkuntza gutxitua da. Ez dago ia euskaldun elebakarrik eta ez dago euskara jakin beharrik bizitzeko, are gutxiago etorkinek okupatzen dituzten lanetan. Iristen direnen kopuru handi bat, gainera, Hego Amerikakoak dira eta horiek gaztelaniaz badakite. Gaztelaniaz ez dakitenek somatuko dute gaztelania ikasteko beharra, eta ingurune batzuetan euskara ikasteko premia ere bai, baina aukerarik argiena beti izango da gaztelania, bi hizkuntza ikastea lana delako, bai eta gastua ere. Eta gehitu horri, etorkin askok oinarrizko arazoak dituztela -etxebizitza lortzeko zailtasunak, paperak lortzeko trabak, lanik ez...- eta beraz ez dutela astirik hemengo egoera soziolinguistikoari arreta jartzeko. Beraz, arazo nagusia, hemen, euskara normalizatu gabe dagoela da eta horrek ondorioak daukela. Puntu honetara iritsita, komeni da azpimarratzea baita ere askotan etorkinei eskatzen diegula autoktono askori eskatzen ez dieguna. Beraz, bistakoa da immigrazioak arazo berriak sortu beharrean, lehendik ere bagenezkanak jartzen dizkigula bistan. Zorionez, dena den, etorkin ia guztien seme-alabak D ereduaren daude eskolatuta.

Zergatik eskatzen diegu etorri berriei hemen bertako askori eskatzeko gai ez garena?

Badago halako mesfidantza bat etorri berriekiko. Euskararen biziraupenerako mehatxu gisa ikusten ditu euskaldun askok. Eta bistan da haiek eta haien seme-alabak euskarara ekartzea funtsezkoa dela euskararen geroa ziurtatzeko. Garrantzitsua da onartzea etorkin heldu gehienek ez dutela ikasiko euskara oinarrizko beste lehen tasun batzuk dituztelako, baina txalotu behar dugu haiek euskararekiko duten jarrera positiboa, jarrera horiek seme-alabei transmititu



*"Bistakoa da
immigrazioak arazo berriak
sortu beharrean,
lehendik ere bagenezkanak
jartzen dizkigula bistan"*

diezaieten. Etorkinen seme-alabek maite behar dute euskara, euskara delako eskolako hizkuntza eta euskaldunak izango direlako. Hori gurasoei azaldu behar zaie. Eta etorkinei eskatzen diegun hori bera eskatu behar diegu autoktono erdaldunei: jarrera positiboak izan ditzatela. Etorri direnak erakarri behar ditugu, liluratu behar ditugu, eta baliabide guztiak eman behar dizkiegu, hizkuntzaren ikasketa-prozesu hori errazteko. Hizkuntza ikasteak giza talde bateko parte egiten gaituela ulertarazi behar diegu eta euskara ikasi gabe Euskal Herriko kultura aberastasunaren zati handi bat galduko dutela.

Euskara hizkuntza gutxitua izan arren, badu estatus bat hemen, kanpotik datozenen hizkuntza



"Egoera zaurgarrian dauden ikasleak eta etorkinak jasotzen dituzten eskolek behar dituzte baliabide gehiago, heterogeneotasunak lan gehiago ematen duelako"

askok ez dutena. Eta halakotan beti dago arriskua zapaldua zapaltzaile bihurtzekoa. Zer eta nola egin beharko genuke halakorik ez gertatzeko?

Latinoamerikatik etorri ez diren guztien hizkuntzak dira hemen hizkuntza gutxituak, eta beraz, desabantailan daude. Gure kasuan, euskara normalizazio prozesu batean dagoen hizkuntza da, baina D ereduko eskoletan hegemonikoa da eta horren kontzientzia hartu behar dugu. Ez dugu ahaztu behar irakasleek edo begiraleek haur batzuen hizkuntza ez ezagutzeak esan nahi duela ez dutela jakingo ume horrek zer nolako zailtasunak izango dituen gure hizkuntza ikasteko prozesuan. Eta jakina, ezin diogu eskatu irakasleari hizkuntza guztiak ikasteko, baina bai gutxieneko keinu batzuk egiteko eta

beste hizkuntza gutxitu horiek prestigiatzeko eskolan. Adibidez, komeni da irakasleek ume horien etxeko hizkuntza estimatzea, haien izenak ondo ahoskatzea, gutxieneko hitz batzuk jakitea, eskolako horman hizkuntza aniztasun hori agertzea, eskolako egunean hizkuntza horietako kantuak jartzea eta batez ere gurasoei transmititzea etxeko hizkuntza transmititu behar dietela seme-alabei, aberastasuna delako eta etxeko hizkuntza ondo menperatzea oinarria delako beste hizkuntzak ikasteko. Ume horiek baliabide izugarriak izango dira komunitatearentzat, zubi-lana egingo dutelako.

Gertatzen da askotan etorkinen seme-alabak ez ditugula nahi izaten gure eskoletan. Baliabide eta prestakuntza nahikorik badute eskoletan?

Etorkinak jaso dituzten eskolek sentitu dute ez dutela behar beste baliabide, eta nik garbi daukat egoera zaurgarrian dauden ikasleak eta etorkinak jasotzen dituzten eskolek behar dituztela baliabide gehiago, heterogeneotasunak lan gehiago ematen duelako. Kontuan izan ikasle horiek eskolatu daitezkeela ikasturtea hasita dagoenean, iritsi daitezkeela eskolako hizkuntza bat edo biak jakin gabe, askotariko zailtasunekin... Eta horri guztiari erantzuteak eskatzen du esfortzu handiagoa eta denbora gehiago. Eskola batzuetan ikasleen gehiengo handi batek jasotzen du jantokirako beka adibidez, eta haien gurasoek ez dakite eskaera paperak betetzen. Pentsa eskola horietako zuzendaritzek zenbat ordu eskaini behar dizkioten familia horiei, eta egin kontu zuzendaritza guztiek ordu kopuru bera dutela beren egitekotarako. Kontuan izan, gainera, askotan kanal tradizionalen bidez ezin dela guraso horiengana iritsi. Orain arte, hezkuntza administrazioa itsua izan da eta ez du ulertu nahi izan hori, eta jakina, baliabideak falta direnean ulergarria da irakasle batzuek esatea 'nik nahiago dut testuinguru lasaiago batean lan egitea'. Eta gero badaude testuinguru batzuk baliabide guztiak emanda ere, konpon ezin daitezkeenak. Iristen badira bederatzi ikasle berri ikasturtea hasita dagoela, zer egin behar du irakasleak? Aldrebeskeria ugari ikusi ditugu.

Zeren beldur gara gurasoek?

Nik ulertzen dut guraso autoktono, zuri eta klase ertaineko askori ez zaiela erraza ikasle gehienak etorkinen seme-alabak diren ikastetxe batera bidaltzea beren umeak, testuinguru hori ez

delako egokia inorentzat, baina etorkin-autoktono kopuru horiek zentzudunagoak direnean ere askok ez dute nahi izaten nahasterik. Nahiago izaten dute beren klase berekoekin elkartzea. Horren atzean egon daitezke jarrera elitistak, arrazistak eta xenofoboak, eta badago hezkuntza kalitateari buruzko kezka ere. Baina gauza bat esan nahi nuke: eskola heterogeneotan, pribilegiotik datozen ume horiek ez dute gutxiago ikasten etorkinik hartzen ez duten ikastetxeetan baino. Aldiz, ikasle etorkinek bai ikasten dute gehiago. Gizarte kohesioari begira ere, sekulako galera da autoktonoak eta etorkinak bananduta haztea. Denok dakigu eskola gune pribilegiatua dela kulturarteko bizitzarako, baina horretarako, ikasleek gelak konpartitu behar dituzte.

Hizkuntzaren defentsan egiten duela dioenik ere izango da.

Bai. Euskararen defentsaren izenean, badira guraso asko euskara identitate ikur moduan duten ikastetxeen alde egiten dutenak, eta nik uler dezaket hori eta babestu ere bai, baina galdetuko nieke horiei ea euskararen erabilera bermatuta ikusten duten beste testuinguru guztietan, ea euskararen defentsaren izenean ari garenean ez ote garen ari gure klase sozialekoekin elkartzeko estrategian. Galdera deserosoa da, baina egin beharrekoa. Iruditzen zait pentsatu behar dugula baita ere egiten ari garen honek nora eramango gaituen. Izan ere, etorkinen seme-alaba gehienak ikasle autoktono gutxi dauden D ereduko ikastetxe jakin batzuetan ari gara batzen eta horrek ez dio onik egiten euskarari, modu horretan ez delako sustatzen euskararekiko eta euskal kulturarekiko atxikimendurik. Badirudi ereduak zera dela: Bai, zuek, etorkinon seme-alabok, ikasi euskara, baina gugandik berezita. Ez ahaztu gero eta ume gutxiago ere jaiotzen direla. Gauza batzuk zaindu behar ditugu eta ez bakarrik ekitatearen eta justiziaren izenean, baita euskararen izenean ere.

Datuen arabera, hezkuntza publikoa da nagusiki etorkinen erronkari erantzuna ematen ari zaiona, eta aldi berean, prestigio apalena ere izan ohi duena sarri. Zer konponbide du horrek?

Bai, eta horren inguruan pentsatu behar dugu denok, asko diolako gure gizarteaz. Etorkinen seme-alabak eskolatzea ez da hezkuntza erronka bakarrik. Pobrean seme-alabak dira eta erronka linguistikoa eta kulturala ere bada.

*"Gauza batzuk
zaindu behar ditugu
eta ez bakarrik ekitatearen
eta justiziaren izenean,
baita euskararen izenean ere"*

Klase baxuko horiek D ereduko ikastetxe publikoetan daude nagusiki, eta eskola horiek izugarritzko zerbitzua ematen ari zaizkio gizarte honi ume horiek euskaldunduta, adibidez, baina trukean zer da jasotzen ari direna? Izen txarra eta gizarte honetan hobeto kokatuta dauden familien arbuioa. Eta horrek eragiten du eskolek eurek autoestimua baxua izatea eta ondorioz zuzendaritza talde egonkorra osatzeko zailtasunak izatea, irakasleek alde egitea aukera dutenean... Ez dugu saritzen eskola horiek egiten duten ahalegina eta lan ona, kontrakoa baizik. Ospe txar hori desnaturalizatu behar dugu. Ondo legoke pentsatzea baita ere zergatik ez zaion aitortu egindako lan hori guztia.

Eskola guztiak dira orain "inklusiboak". Jatorri eta klase ezberdinetako umeak nahasteak egiten al du eskola bat inklusibo?

Hezkuntza Lege Berrirako ituna sinatu dute eta jaso dituzte neurri batzuk, baina ikusten duguna da egiaz ez direla gauza handirik egiten ari. Aipatzen dute Lege Berria 12 urte barru, 2034rako, guztiz garatuta egongo dela, baina iruditzen zait hor jasotako hainbat neurrik indarrean behar luketela dagoeneko. Begira, itunean jasotako neurri horietako asko lege berriaren zain egon gabe ere jarri daitezke indarrean, Hezkuntza Sailaren eskumeneko kontua delako neurri horiek hartzea. Inklusioaz ari garela, ikastetxe batzuk deseroso sentitzen dira gaur, lupa gainean dutela sentitzen dutelako eta badirudi prest daudela etorkinen seme-alaba batzuk hartzeko, baina inklusioa hori baino gehiago da. Kultura inklusiboa ez da egun batetik bestera garatzen. Eskolaz kanpoko jarduerak garestiak baldin badira, kirolerako ekipazioa erosi behar bada, eskiatzera txangoak egiten badira... hor ez dago inklusiorik. Nola sentituko dira familia batzuk orain arte kultura inklusibo hori izan ez

duen ikastetxeetan? Ikastetxe batzuek bide luzea dute hor egiteko eta hor erresistentziak sortuko dira, familia batzuek pribilegioa mantendu nahiko dutelako.

Familiek zer eskatzen duten ikusi beharko da, zioen sailburuak, baina hor ez al dago arriskua?

Kontua ez da etorkinak banatzea, baizik eta eskaintza modelatzea, Jaurlaritzarentzat aholkularitza lanetan ari diren adituek dioten moduan. Gaur egon daitezke herri batean 2 urteko 18 ikasle eta bi ikastetxe eskaintzen dutenak bina gela, baina 18 ikaslek ez dute ematen horrenbesteko. 18 ikasle badaude herri batean, ikastetxe batean egon beharko lirateke 9 plaza, eta bestean beste 9. Esaten dena da erabakitzeke eskubidearen izenean dena mantendu behar dela, baina hori eginda segregazioaren alde egiten ari gara.

Zer du ona Hezkuntza Lege Berriak?

Niri papergintza ez zait interesatzen. Beti dago ondo hitz egitea eta eztabaidatzea, baina egiten dena interesatzen zait neri.

Segregazioa ez da eskolara mugatzen. Aisialditik zer dugu egiteko?

Ume guztientzako erakargarria den aisialdia eskaintza prestatzeak izan beharko luke erronka, eta eskaintza hori doakoa ez bada, gutxienez oso merkea izatea egoera zaugarrian dauden umeek ere aukera izan dezaten joateko. Aldi berean izan behar da interesgarria maila ekonomiko hobeagoa duten familiek pentsatzeko interesgarria dela. Gertatzen delako hori ere. Prestatu eskaintza merke edo eskuragarri bat eta izena ematen duten denak klase apaleko familietako umeak izatea. Eta kontuz, batzuetan hori hobe delako ume horiek etxean gelditzea baino. Eskolaz kanpoko jardueretan edo aisialdian handitzen da arrakala soziala. Ume askoren aisialdi osoa

"Iristen zaie aisialdia eskaintzaren berri familiei? Iristen zaie laguntzen berri? Irakasleek eskaintza osoaren berri eman beharko liekete familiei. Tutoreen zubi-lana oso garrantzitsua da"

ordainpekoa da gaur, eta beste ume askok ez dute horretarako aukerarik. Askotan esaten da kalitate handiagoko aisialdia dela ordaintzen duten horiena, eta ni ez nago batere konforme horrekin, baina egia da laguntzen dietela eskolan errendimendua hobetzen. Itzalpeko curriculum esaten zaio horri. Hiru hilabete pasatzea udan euskaraz hitz bakar bat entzuteko aukerarik izan gabe ere, desabantaila handia zaie ikasle askori. Familiek ulertu behar dute hiru hilabete pasatzea euskararik entzun gabe ez dela batere ona euren seme-alabentzat, eta asko ez dira kontziente.

Diru-laguntzak banatzen dituzte Udalek, ume guztien aukera berdintasuna bermatzeko aisialdian. Bermerik badago?

Iruditzen zait aukera berdintasuna bermatzen dela ziurtatzeko giltza Hezkuntza komunitate osoarena dela. Iristen zaie diru-laguntza horien berri familiei? Iristen zaie eskaintzaren berri? Hor irakasleen papera oso da garrantzitsua. Irakasleek eskaintza osoaren berri eman beharko liekete familiei eta batzuetan baita bultzatu ere izena ematera. Tutoreen zubi-lana oso garrantzitsua da. Tutorea hurbiltzea gurasoei eta esatea beren seme-alabari ondo etorriko litzaiokeela udalekuetan izena ematea eta esatea, behar izanez gero, diru-laguntzak dituela horretarako eta azaltzea ondo nora jo behar duen edo laguntzea bertara bakarrik moldatzen ez badira, oso-osoa da garrantzitsua. Irakasleok ulertu behar dugu hori ere gure lanaren parte dela eta hori eginda hobeto joango zaigula denori. Konplizitatea bilatu behar dugu eskolekin eta irakasleekin, modu pertsonalean egin dezaten lan familia horiekin.

Eta gurasoak? Zertako behar ditu eskolak gurasoak? Zer parte-hartze behar lukete gurasoek eskolan?

Sinergiak bilatu behar dira, onuragarriak ezezik behar-beharrezko ditugulako eta aukera zoragariak galtzen direlako bestela. Familiak ikastetxeko parte dira, zutabe garrantzitsua. Ikastetxearen kulturak esangura handia du guzti honetan, hala ere. Ikastetxe batzuk oso inklusiboak dira familiekin; familiek sarbide osoa dute eskolara. Beste batzuetan, aldiz, ez dute inolako sarbiderik. Hor zuzendaritzaren eta batez ere zuzendariaren estiloa erabakigarria da, pertsona horiek duten eragina oso delako handia.

70.000 URTEKO HISTORIA ARBASOEN HARPEAN

✍ Ainhoa Andonegi / 📷 Asier Orbea

Hiru urte pasatxoko lanaren ostean, Arbasoen Harpea zabaldu zuten zapatuan, Mufomi museoan. Historiaurrera bidaiara egitea ahalbidetzen duen koba baten errekreazioa da, eta bost gune desberdinetan banatuta, labar artearen historia bildu dute. Orain dela 67.000 urtekoak dira ikus daitezkeen lehen irudiak, eta orain dela 7.000-6.000 urtekoak azkenak. 45 bat metroko luzeera dauka kobak, eta lau metroko altuera. Bisita gidatuak eskaintzen dituzte, aurrez ordua hartuta.

Mufomi fosil eta mineralen museoak balio kalkulaezina zeukan lehen ere, baina orain beste altxor bat dauka lurpean: Arbasoen Harpea. Morkaiko-Leizarpe espeleologia taldeko Angel Mari Tobajas eta Javier Vargasek historiaurrean duten pasioaren emaitza da bereziki, koba errekreazio hau, baina gaur egun Javierren alaba Cristina Vargas ere proiektuan sartuta dago. Gida turistiko ikasketak egin ditu, eta ikasketa amaierako proiektua Mufomin egin zuen. Hiruren artean azaldu dute zer den Arbasoen Harpea.

Artetxeko eskola zaharreko geletan dago Mufomi museo, eta eskolak martxan zeuden garaian ikatza gordetzeko erabiltzen zuten biltegia zeukan lokalak azpiko aldean. Lokal hari probetxua ateratzea bururatu zitzaizen Angel Mari Tobajas eta Javier Vargasi, eta kobazulo baten errekreazioa egitea erabaki zuten. Hiru urte pasa eman dituzte lanean, dena beraien kabuz: "Ez geneukan igeltseritza lanei buruzko ideiarik ere, baina burugogorrek gara eta ez dugu etsi gure lanean", esan du Vargasek. Igeltsua eta morteroa erabili dituzte biltegiari kobazulo forma



Artetxeko eskola zaharretan dago Mufomi museo, eta eskolak martxan zeuden garaian ikatza gordetzeko erabiltzen zuten biltegian sortu dute koba, museoaren azpiko aldean

emateko, eta benetako haitzen itxurako formak sortu dituzte. Lehenengo solairuko horma baten zabaldu dute atea, burnizko atea, ohiko koba arkeologikoetako sarrera originalak kopiatuz.

Benetako koba baten errekreazioa egin dute, eta 70.000 urteko labar artearen historia bildu dute bertan. Handik sartzean hasten da historiaurrerako bidaiara. Sartzeaz bat, temperatura ere aldatzen da, eta benetako kobazuloetako freskura nabaritu daiteke. Estalaktitik eta gours formek egiten diote bisitariari ongi-etorria, eta eskalera estu batzuetatik jaitziz iristen da paleolitikoaren gunera. 45 metroko luzera du kobak, eta bost gunetan banatuta dago:



Euskal Herriko, Espainiako eta Frantziako koba ezagunenetako marrazkien errekreazioak egin dituzte. Ekain, Altamira edo Lascaux kobetako marrazkiak ikusi daitezke, besteak beste

Sarrera, sima, Neanderthal sala, Capilla Sixtina eta Mediterraneo sala. Gune horietan garai desberdinetako margoak ikus daitezke, Euskal Herriko, Espainiako eta Frantziako kobetan agertu diren margoen erreplikak dira, batzuek tamaina errealean eta besteak eskalan eginak. Orain dela 70.000 urte ingurukoak dira lehen gunean aurki daitezkeen margoak. Neardenthal sala da lehenengoa, eta hainbat animalia eta esku-irudiak dira nagusi. Kantabriako La Pasiega eta El Castillo kobetakoak dira irudi batzuk, Cacereseko Maltraviesokoak beste batzuk eta Frantziako Chauvet kobako irudiak ere badaude. Kobazuloan zehar aurrera eginez, Capilla Sixtina deitu

dioten salan barneratuko da bisitaria, eta gune honetan Ekaingo kobazuloko hartzen irudiak, Kantabriako Altamirakoak edo Frantziako Lascaux koba ezaguneko marrazkiak margotu dituzte. Kobazuloaren amaieran Mediterraneo sala kokatu dute, eta gune honetako pinturak orain dela 7.000-6.000 urte ingurukoak dira. Modernoagoak dira, eta lehen aldiz emakumezkoen irudiak ere ageri dira. Ehiza dute oinarri horma batzuetako margoek, dantza ere agertzen da eta Valentziako Araña kobazuloan agertu zen emakume langilearen irudi bat ere marraztu dute; ezia biltzen ari den emakumearen irudia hain zuzen ere.

ELGOIBARKO ESPELEOLOGIARI KEINUA

Mufomi museoa eta Elgoibarko espeleologia taldeak lotura handia izan dute beti, eta horregatik keinu egingo diote Elgoibarko espeleologiari Arbasoen Harpean. 2023an 50 urte beteko dira Angel Maria eta Jose Manuel Tobajas anaiek eta Santos Diezek Elgoibarren lehen espeleologia taldea sortu zutenetik. Beraien kabuz hasi ziren, baina berehala federatu ziren, Morkaikoren babesean, eta gerora Morkaiko-Leizarpe



Espeleologia Taldea izena hartu zuen taldeak. Javier Vargas bera ere taldera batu zen, eta modu horretan historiaurreak eta espeleologiak bat egin zuten. Kobazuloetara sartzen ziren eta han biltzen zituzten harri-bitxi, mineral edota fosilekin hasi ziren museoa osatzen. Garai hartan kobazuloetan sartzeko erabiltzen zuten materiala jarriko dute ikusgai kobazuloaren sarrerako apal batean: sokak, mapak, kaskoak, linternak... Bitxikeria moduan azaldu dute gaur egun Arbasoen Harpea dena izan zela Elgoibarko espeleologoaren lehen lokala. Badirudi biltegi horren patua zela koba bihurtzea.

BISITA GIDATUAK

29 urte dira Mufomi museoa zabaldu zutela, eta urtetik urtera garatuz joan da museoa, Vargas eta Tobajasen boluntario lanari esker. Pasioak mugitu ditu Vargas eta Tobajas, eta ondo baino hobeto dakite altxor bat dutela Artetxeko eskoletako lokal horretan. 29 urte ditu museoak, baina elgoibartar askok oraindik ez dute ezagutzen, eta hori da orain beraien helburua, museoa ezagutzera ematea. Ikastetxeekin lan egitea gustatuko litzaieke, eskola-umeei historiaurreko kontuak bertatik bertara erakusteko, baina horrez gain, museoa zabalik dute, bisitatu nahi duen edonorentzat. Debabarreneko turismoari ekarpena egin nahi dio Mufomik, eta Geoparkeak eskaintzen duen Karstaren ibilbidea aberastuko duela uste dute arduradunek. Doakoa da, arduradunek ez dute irabazi asmorik, soilik beraien ezagutza konpartitu

45 metroko luzeera dauka Arbasoen Harpeak, eta duela 70.000 urtetik 6.000ra arteko marrazkiak biltzen ditu

nahi dute herritarrekin. Javier Vargasek esan du beraiek lehenaldia ordezkatzeko dutela museoa, eta bere alaba Cristina dela etorkizuna. Cristina Vargasek Gida turistikoa izateko ikasketak egin ditu, eta aitaren museoa egin zuen ikasketak amaiarako proiektua. Umetatik edan du aitaren jakintzaren iturritik, eta beregan ere piztu da museoarekiko interesa. Museoa astelehenetik domekara zabaltzen dute, baina arduradunek eskatu dute aurrez hitzordua eskatzeko.

HELBIDEA

Artetxe kalea z/g
(Artetxeko eskola zaharrak)
Elgoibar, Gipuzkoa, 20870

ORDUTEGIA

Sarrera doan, hitzordua eskatuta
Astegunetan: 18:00-20:00
Asteburuetan - Jaiegunetan: 11:00-14:00
608 416 683
info@mufomi.org
www.mufomi.org

dkt

Debarreneko
Komunikazio
Taldea

Bizi Debarrena

Turismoa dibertsifikazio-iturri



AITZIBER CORTAZAR ALTUNA

DEBEGESAKO TURISMO ETA GARAPEN JASANGARRIKO SAILAREN ARDURADUNA

Aldi oro zalantzan jartzen da turismoak EA Eren ekonomiarari eta euskal gizarteari egiten dion ekarpena, eta, ondorioz, ez zaio ematen ekonomia-jarduera eta enplegua dinamizatzeko faktore gisa dagokion tokia, ezta tratamendua ere. Hala ere, Debabarrenak turismo-eredu jasangarrien aldeko apustua aldarrikatzen du eta horretan dihardu.

2010az geroztik, eskualdeko produktu turistiko nagusia Deba, Mutriku eta Zumaiako udalerriek osatzen duten Euskal Kostaldeko UNESCOren Munduko Geoparkea da. Biztanle orori zuzendutako 15 irteerek osatzen duten bisita gidatuen programa dauka eta urtean 1.300 bisita baino gehiago eskaintzen ditu. Bisitarietako asko bertakoak dira. Hori horrela, ez bairik gabe, eskualdeko produktu turistikoen garapen handiena kostaldean dugu, horren adierazleak dira, besteak beste, Deba eta Mutrikuko hondartzak, begiratokiak, Donejakue bidea, Mutrikuko Hirigune Historikoa, Santa Maria Eliza, Arrietakua Jauregia, geo-ibilbideak, etab. Produktu guztiak garatzeko eredua jasangarria lantzen eta bideratzen da, hain zuzen, masifikazioa ekiditeko.

Era berean, turismo sektorea ekonomiaren dibertsifikazio iturri dugu eskualdean, enpresa txikiak osatzen dute, gehienak familia-negozioak: bizitza-apustua. Sektoreak neguan enpresei ematen die zerbitzu, udan, berriz, bisitariei. Hori horrela, ostatu-eskaintzari erreparatzen badiogu, Deba eta Mutrikuko

udalerrietan landetxeak eta nekazalturismoak ditugu nagusi, zalantzarik gabe landa-inguruneari eusteko funtsezko elementuak bilakatu dira. Eta kanpinen eskualdeko ostatu-eskaintza handiena osatzen dute. Eibar, Ermua eta Elgoibarrek eskualdeko ohe eskaintza gehiena dute eta udan (ekaina-abuztua bitartean) % 95 baino gehiagoko okupazio-tasak dituzte. Horren erakusle dira azken urteotan Eibarren sortutako alojamendu berriak.

Testuinguru horretan, erronka nagusietako bat eskualde barruko udalerrietan eskaintza turistiko erakargarria eta jasangarria garatzea da. Turismoak hainbat eta hainbat aldiz erakutsi du ondarea berreskuratzeko eta mantentzeko duen gaitasuna, horren adibide da azken urteotan Dolmenen ibilbidearen inguruan Bergara, Soralue eta Elgoibarko udalek egindako lanketa. Beraz, ditugun elementuetatik abiatuta, ondare industrialari eta eskualdearen nortasunari aukera

turistikoa eman diezaiogun.

Eskualdeko turismo sektorea negozio txikiz osatua dago, landa-eremuaren biziraupenari mesede egiten dio eta ondarea mantendu eta balioan ipintzeko baliabide ezin hobea da. Industrialari den eskualde honetan enpresei zerbitzu ematen die eta bertakook gozatu ditzakegun eskaintza baliatzen du. Beraz, turismo eredua jasangarrienaren aldeko apustua egin dezagun eskualdean.

"Turismoak hainbat eta hainbat aldiz erakutsi du ondarea berreskuratzeko eta mantentzeko duen gaitasuna"

Argitaratzailea: Debabarreneko Komunikazio Taldea

Erredakzioa: Ainara Argoitia, Ainhoa Andonegi, Ekhi Belar, Dorleta Vidal, Ubane Madera, Iزارo Aulestiarte

Publizitatea: Leire Rubio, Belen Ulazia, Dorleta Vidal, Oier Larreategi, Nagore Dorronsoro

Diseinua eta maketazioa: Zalao Arnaiz

Tirada: 18710 ale



Museoak



Armagintzaren Museoa

Bista-Eder kalea, 10. EIBAR
943 708 446
museoa@eibar.eus
Asteazkenetik larunbatera: 16:00-20:00
Igandeetan: 10:00-13:00



Gerra Zibileko Interpretazio Zentroa

Arrate Balle auzoa. EIBAR
944 029 099
www.ateri.net
Igandeetan: 11:30-13:30



Makina Erreminta Museoa

Azkue Bailara, 1. ELGOIBAR
943 708 456
museoa@museoa.eus
Astegunetan: 8:30-13:00/14:30-17:30



Mufomi Museoa

Artetxe kalea z/g. (Artetxeko eskola zaharrak). ELGOIBAR
608 416 683
info@mufomi.org
Asteburuetan-jaiegunetan: 11:00-14:00



Hezur Museoa

Artetxe. ELGOIBAR
650 352 566
josejumarquez@gmail.com
Asteburuetan, aurrez ordua hartuta bakarrik.



Nautilus Interpretazio Museoa

Jose Antonio Ezeiz kalea, 3. MUTRIKU
943 603 259 / 943 603 378
nautilus@mutriku.eus



Debako Surf eskola

YAKO

UDAKO IKASTAROAK

> SURF ASTEKOAK
Astelehenetik ostiralera
Iraupena: 7 ordu eta erdi
Ordutegiak:
A) 10:00 - 11:30 B) 12:00 - 13:30
D) 16:00 - 17:30 E) 18:00 - 19:30

BI EGUNETAKO KURTSOA
Iraupena: 3 ordu (ordu eta erdi eguneroko)
Aukeratu zuk asteko egunak

ORDU PARTIKULARRAK
Astelehenetik igandera

> MULTISURF
Ekainaren 20tik irailaren 9ra.
Astelehenetik ostiralera
Iraupena: 15 ordu
Ordutegiak: 10:00 - 13:00
Adina: 6 urtetik 13ra

> SURF - SKATE
Astelehenetik igandera
Eskolak orduka
Hastapena eta hobekuntza







PLAZA MUGATUAK
688 743 863 | 943 029 600
www.yakosurf.com
yako@yakosurf.com

> SUP
Astelehenetik igandera
Hastapen eskolak orduka
Hobekuntza eskolak

DEBA-ITZIAR - Mendatagaina



Mendatagaina du inguruotako tokirik kuttunena Josune Arakistain (Lastur, 1996) Huntza taldeko abeslari eta trikitilariak. "Euskal Herria ederra dela badakigu, baina Top zerrenda bat egingo bagenu, dudarik gabe leku hau lehenengo postuetan egongo litzateke", adierazi du. Gustuko ditu bertako "fauna, flora, historia, paisaia eta lasaitasuna (udaran ez horrenbeste)...", eta hitz gutxitan laburbildu du preziatua duen lekua: "Itsasoa eta mendia elkartzen diren puntua da, gozatzeko eta errespetatzeko labarra".

Zenbait urtez trikitilari txapelketetan ibili ondoren, Huntza taldearekin dabil plazaz plaza lasturtarra, 2014az geroztik. Urteotan, lau disko kaleratu dituzte –*Ezin ezer espero* (2021, Mauka Musikagintza) da horietako azkena–, bidean ehunka oholtza eta leku ezagutuz. Baina, musika esparruan ere, Mendatagain aldeak berezia izaten jarraitzen du Arakistaintzat. "Nire ibilbideko bideoklip garrantzitsuena, *Aldapan gora* abestiarena, bertan grabatu genuen eta oroitzapen zoragarriak dakarzkit".

Aitzuri hormatzar handiaren gainean kokatua, Mendatagainak euskal kostalde osora hedatzen den ikusmira zabala eskaintzen du. Hainbat ibilbide egin daitezke inguruetan; *Itsaslabarraren Sustraiak* (PR-Gi 5001), adibidez. Mendatagaineko behatokitik, Sakonetako senadia, Andutzeko faila (flysch kareduna eta flysch beltzaren artekoa), marearteko zabalgunea

JOSUNE ARAKISTAIN - Musikaria



"Itsasoa eta mendia elkartzen diren puntua da, errespetatzeko eta gozatzeko labarra"

edo Mendatako ur-jauzi txikia ikus daitezke. Halaber, paisaiaren parte dira hariztiak, artadiak, txilardi-otadiak...

"Gauzetara ohitzen garenean aspertzen garela dio esamoldeak, baina ni ez naiz sekula ohituko leku honetara".

- **Izena:** "Itsaslabarraren sustraiak"
- **Distantzia:** 5,5 km
- **Iraupena:** 01:55 h
- **Zailtasuna:** Erraza
- **Hasiera:** Itxaspe kanpina
- **Amaiera:** Errota Berri jatetxea

EIBAR - Ixuatik Arratera



Ylenia Baglietto (Eibar, 1986) bide arrakastatsua egiten ari da antzerkiaren munduan. Aktore eibartarra gelditu barik dabil eta azkenaldian *Erresuma* antzezlanean ikusi ahal izan dugu, besteak beste. Pasioz eta maitasunez jarduten du, baina oso lanbide zorrotza da aktorearena eta Yleniak eguneroko joan-etorrietatik ihes egiteko ibilbidea proposatu digu.

Eibartar orok ezagutzen du Ixua eta Arrate arteko bidea, baina ezaguna izanagatik ez du bere xarma galtzen. Gainera, bide horrek esanahi berezia du Yleniarentzat. "Umetan aitarekin egiten nuen ibilbidea da", gogoratzen du maitasunez. "Goizetik etxetik irten eta oinez joaten ginen Ixuara. Frito batzuk jaten genituen han, eta gero, Arratera joaten ginen oinez", gehitu du.

Bide horretan Kalamuako lautadatik pasatzen da bidea eta norbaiti Arratera doan bidea oso erraza iruditzen bazaio, Kalamua, Aizketa, Akondia eta Garagoitiko tontorretara igotzeko aukera ere badu bidetik asko aldendu gabe. Bide asko dago, aukera ezberdinak.

Behin Arratera iritsita, han zerbait bazkaltzeko ohitura zutela dio Yleniak. Orain, jatetxe bakarra dago bertan, Tiro Pitxoia, hainbeste urtetan Arrateko ikurra izan den Kantabria jatetxeak itxi berri baitu atea.

YLENIA BAGLIETTO - Aktorea



"Goizean goiz aitarekin etxetik irten, Ixuara joan eta fritoak jaten genituen han"

XVII. mendean eraikitako elizaz gain, frontoia, sua egiteko parrillak, mahaiak eta zelai handi bat aurkitu ditzakegu Arraten. Yleniak, ostera, beste toki bat nabarmentzen du: gurutzeta. "Bueltak ematen genizkion ligatu ahal izateko", diosku barrez.

- **Distantzia:** 10 km (Ixua-Arrate-Ixua)
- **Zailtasuna:** Erraza / ertaina
- **Interes puntuak:** Usartza, Kalamua, Akondia, Aizketa eta Garagoiti gainak

ELGOIBAR - San Pedroko parkea



Reyes Prados (Sevilla, 1982) Sevillan jaioa da. Han Regin zituen Kazetaritza ikasketak, eta lanak ekarri zuen Euskal Herrira, 23 urte zituela. Bilbo ingurura iritsi zen lehenengo, eta hasierako urteak Sevillatik Euskal Herrira bueltaka eman zituen. Orain dela bost urtetik Elgoibarren bizi da, eta Elgoibar, eta oro har, Euskal Herria izugarri gustatzen zaizkiola dio. Gustuko txoko asko ditu, baina Elgoibarren bat aukeratzeko eskatuta Idotorbe-San Pedroko gunea aipatu du: "Elgoibarren dago, baina aldi berean, ez dago Elgoibarren. Herritik gertu dagoen oasis moduko bat da". Herritik hurbil dago San Pedro, eta oinez zein autoz joateko aukera ematen du. Pradosek aitortu du bera ez dela oso mendizalea eta ia beti autoz joaten dela, baina handik abiatuta, mendi ibilaldiak egiteko ohitura daukala. Kalamuara, Morura, Morkaikora edota Arratera oinez joateko abiapuntua da San Pedro herritar askorentzat.

Pradosen ustez, San Pedrok dena dauka, umeen zein helduen gozamenerako. Frontoia, parkea, barbakoa egiteko parrillak, eta batez ere, bistak: "San Pedrok dagoen ikuspegia zoragarria da, mendi pila bat ikusten dira eta orduak eman ditzaket urrutira begira". Jatetxea ere badago, hamaiketako egin edo bertan bazkaltzeko aukera ematen duena. "Askotan egoten gara gu jatetxeko

REYES PRADOS - Kazetaria



"Herritik gertu dagoen oasis bat da San Pedro"

terrazan zerbait hartzen, eguraldi onarekin. Leku aproposa da, eta neguan taberna barruan goxogo egoten da".

Bakarrik zein familian edota lagun artean gozatzeko aukera ematen du San Pedrok, eta elgoibartar askok aukeratzen dute asteburuetan.

- **Distantzia:** Elgoibartik 4 km-ra dago.
- **Zailtasuna:** Erraza, autoz edo oinez joan daiteke.
- **Aipatzekoak:** Jatetxea dago, eta baita mahaiak norberak etxetik eramandakoa jateko.

ERMUA - **Untzamako gaina**



Igor Astarloak (Ermua, 1976) 2009an utzi zuen txirrindularitza profesionala, lortutako garaipenei esker kirol horretan erreferente bihurtuta. Garaipen horien artean Munduko Errepideko Txirrindularitza Txapelketa nabarmentzen da, 2003an eskuratu zuena Hamiltonen (Kanada). Garai hartan Untzama ingurura joaten zen Igor sarritan, eta gaur ere, bere lekurik kuttunen artean dago mendi hura. Ermuko Santa Ana auzotik abiatu behar da bertara joateko, Abeletxe baserria igaro, eta maldan gora jarraitu lautada batera heldu arte, ezkerretarako bihurgunea hartu baino lehen. Handik, zuzen joanda, Untzamako mugarrira heltzen da, Ermua, Eibar eta Zaldibarrek bat egiten duten tokia adierazten duen trianguliformako harrira, alegia.

"Lasterketa aurreko egunetan, goizetan entrenatu, eta arratsaldetan Untzamara joaten nintzen. Denbora asko igarotzen nuen bertan dagoen harrian eserita, lasai, pentsatzen, meditatzen-edo". Izan ere, ermuarraren iritziz, Ermua inguruko txokorik politena da hau, Sallabente gainetik Ermuko hainbat auzo ikusten direlako, Oiz mendia, Egoarbitza... "Paseotxo bat da, gogorra, hasieratik maldan gora joan behar delako, baina ederra!". Paisaia ikusi eta gero kirola egiten jarraitu nahi dutenak Elorretaraino joan daitezke: "Orain dela gutxira arte jarraitu dut bertara joaten. Txikitako oroitzapen politak dakarzkiz,

IGOR ASTARLOA - Txirrindulari ohia



"Lasterketa aurreko egunetan, denbora asko igarotzen nuen bertan, lasai, pentsatzen"

bertan zegoen tabernaraino joaten bainintzen askotan".

Azken bi urteetan Mutrikun bizi den arren, Astarloak ondo gogoratzen ditu inguruko ibilbideak, oinez, korrika, zein bizikleta gainean egitekoak. Negurako, esaterako, Errekaldetik gora doan bidea egitea gomendatzen du, Berano auzoa, Trabaku, Osma eta Areitio zeharkatuta Ermura bueltatzen dena.

- **Distantzia:** 700 metro.
- **Zailtasuna:** Erraza.
- **Interes puntuak:** Ermuko auzoak, Oiz eta Egoarbitza mendien begiratokia.

'Elosua-Plazentzia' liburua aurkeztu dute Karakaten

Ekainaren 19an, Soralezeko, Elgoibarko eta Bergarako alkateek, Aldundiko kultura diputatuak eta Aranzadiko ordezkariak *Elosua-Plazentzia* izeneko liburua aurkeztu zuten Karakaten, azken urteotako indusketetan lagundu duten hainbat boluntariorekin eta ekitaldira hurreratu ziren dozenaka herritarrekin batera.

Elosua-Plazentzia liburua argitalpen mardula da, 160 orrialdekoa eta argazki eta ilustrazio ederrez dator hornitua. Hasierako ataletan, Muskiritzu mendilerroaren ezaugarri geologiko

eta kulturalen berri ematen du, eta, ondoren, XX. eta XXI. mendeetan inguru horretan egin diren azterketen eta aurkitu diren monumentu (21) eta pieza nagusien inbentario zehatza aurkezten du, azken urteotan ezagutu diren datu berrien eta egin diren zaharberritze-lanen gaineko informazioarekin batera. Horrez gain, argitalpenak estazio megalitiko osoa irudikatzen duen oinarritzko mapa bat ere badakar.

Mendeurrenaren harira

Hain justu, aurtun bete dira ehun urte Aranzadik, Barandiaranek

eta Egurennek Muskiritzuko mendilerroan aurkitutako lehen aztarna megalitikoaren gaineko liburuxka argitaratu zutenetik eta Aranzadik data seinlatu hori baliatu nahi izan du *Elosua-Plazentzia* liburua argitaratzeko.

Jesus Tapia Aranzadiko kideak aitzindari izan ziren hiru arkeologo ezagunen lana goretsi zuen

Argitalpen mardula da, 160 orrialdekoa eta argazki eta ilustrazio ederrez dator hornitua



DOLMENEN IBILBIDEA



MENDIA ETA ITSASOA
TALAI ABERETIK

Zatoz historiaurrean
zehar ibiltzera!

BISITA GIDATUEN EGUTEGIA

Uztailak 12, asteartea (Gaztelania)
Abuztuak 15, astelehena (Gaztelania)
Irailak 25, igandea (Euskara)
Urriak 2, igandea (Gaztelania)
Urriak 9, igandea (Euskara)

Bisitetan parte hartzeko beharrezkoa izango da aurrez 657 794 677 telefonoan edo ondorengo helbidean izena ematea:
www.debabarrenaturismo.com/eu/dolmenen-ibilbidea/bisita-gidatuak

Bisita guztiak 10:00etan hasiko dira Karakateko aparkalekutik.





Elgoibarko, Soraluzeko eta Bergarako alkateak eta Aranzadiko teknikaria (ezkerretik hirugarrena) liburua eskutan dutela.

Aurten bete dira ehun urte Aranzadik, Barandiaranek eta Egurenek lehen liburuxka argitaratu zutenetik

gauza gutxi aurkituko genituela, baina harrিতa eta oso pozik nago jasotzen ari garen emaitzekin. Oraindik badago partida. Ari gara beste teknologia eta ikuspegi batzuekin informazioa biltzen eta ondorengoek ere gure lana errebisatu eta osatuko dute".

Liburua salgai

Amaieran jakinarazi zutenez, liburua salgai izango da Dolmenen Ibilbidea proiektua bultzatzen diharduten hiru udalerrietan: Soraluzen eta Elgoibarren udaletxeetako harreran eta Bergaran Laboratoriumean. 5 euroan salduko dute.

aurkezpenean: "Garai hartan ezer gutxi genekien fenomeno honen inguruan. Esplorazio batzuekin zeuden Aralar eta Aizkorri inguruetan eta Muskiritzukoa izan zen Euskal Herrian ezagutu den adibiderik zaharrenetako bat. Orduan ere esaten zuten oso eremu interesgarria zela, ez bakarrik elementuen kopuruagatik baizik eta sakabanatuta eta multzoka

antolatuta dauden moduarengatik ere bai. Garai hartan egin zituzten lanak oso zorrotzak izan ziren ordurako".

Azken urteotako lanari erreparatuz, berriz, arkeologoa gustura agertu da lortzen diharduten emaitzekin: "Orain, ia ehun urte geroago, berriz hasi garenean industen, ematen zuten

Arrate Bailara, 34
(AZITAIN gaina)

RRIARTE

Hotel Asador ***

943 702 967 www.hotelarriarte.com

ERRESERBAK: reservas@hotelarriarte.com

Enpresentzako egongelak
alokairua
Jatetxea
Menu eta Karta
Ospakizunak
Logelak

ZURE OSTATUA
Eibar erdian eta Euskal Herriaren bihotzean

eibarrooms AUTO CHECK-IN

www.eibarrooms.com
Ego Gain, 17 ac

ME MAKINA ERREMINTA MUSEOA

AZKUE AUZOAN, 1
20870 ELGOIBAR (GIPUZKOA)

T. 943 748 456

www.museoa.eus
museoa@museoa.eus

Mélida Ostatua

Debabarreneko betiko ostatua

Bizkaila Etorbidea, 13 · ERMUA

943 17 00 19

www.melidaostatua.com

DEBA
627 325 135

IPAR
SURF & SKATE BSKOLA

Web: iparsurfskate.com
Instagram: @iparsurfskate

Hotel Arbe
Ego bitartean daren arretan

Laranga auzoa 2/g
Mutriku eta Deba artean
Tel: 943 604 749
www.hotelarbe.com

MALLABIA - Trabakutik Trabakura



Mallabikoa den arren, duela urte gutxi aurkitu zuen Karmele Gisasola (Mallabia, 1994) herri-kirolariak Trabakun hasi eta bukatzen den mendi buelta hau, eta ordutik, hainbatetan egin du. Trabakun Ermurako bidea hartu behar da, eta Donai baserriaren parean dagoen porlanezko aldapan gora egin behar da. "Atzealdean Oiz mendia izango dugu, eta eskumatara Mallabiko auzo ezberdinak eta Anboto", azaldu du. Aldapa hura bukatutakoan, ezkerretara dagoen baso pista zabalenetik jo beharko da, Asuntzako bidegurutzeraino. Bertatik Markina-Xemeinera, Urkora edo Mallabiko Berano Txiki auzora jaitsi daiteke, eta Gisasolak azken bide hau hartu ohi du, Berano Nagusirako norabidean. Auzo horretako ermitara heldu baino lehen, Egia baserriaren atzeko pista hartu eta lehengo bidegurutzera helduko gara. Eta hortik Trabakura berriro ere.

Hiru orduko bide hau oinez, bizikletaz edo motoz egin daiteke, eta Karmeleren esanetan, mendiaz, basoko giroaz eta auzo txikiek duten xarmaz gozatzeko aukera ematen du. "Konfinamendura arte ez nekien pista hauek zeudenik, ezta haien artean lotura egiteko aukera zegoenik ere, eta ziur nago beste herritar askok ere ez dutela honen berri izango".

Karmele Gisasola Euskal Herriko txapelduna da harri-jasotzen, ingudean eta banakako pentatloian, eta sasoiari daudenei, bide horretatik Mendibil eta Urko mendietara igotzeko gonbita egin die. Inguru

KARMELE GISASOLA - Herri kirolaria



"Basoko giroaz eta auzo txikiek duten xarmaz gozatzeko aukera ematen du ibilbide honek"

horretan dago Arteta ermita ere: "Hamaika istorio entzun ditugu ermita honen inguruan, gure arbasoek festa egiten zutelako bertan. Hala ere, gaur egun horma batzuk baino ez dira geratzen".

- **Iraupena:** Hiru ordu inguru.
- **Zailtasuna:** Ertaina.
- **Nabarmenezkoa:** Porlanezko bideak mendi ibilbideekin tartekatzen dira, eta kotxeen zarata mendiaren isiltasunarekin. Horrez gain, Oiz eta Anboto mendiak bertatik bertara ikus daitezke.

MENDARO - Lizarpe gaina



Makina bat aldiz zapal dutako gaina duen arren, beti iruditu zaio berezia Lizarpe ingurua Maite Maiora (Mendaro, 1980) mendiko korrikalariari. Umetako eta nerabezaroko oroitzapen asko hangotxeak ditu, eta gaur ere, sarri egiten du harako bidea, lasaitasun bila. Eguneroko entrenamenduetan maiz igarotzen da Lizarpetik, eta paradoxikoa dirudien arren, hauspoa berotuen daramanean ere hantxe hartu du ohi du arnasa ondoen. "Hango larrea, behorren zintzarriak, amen atzetik jolasean dabiltzan moxalen intziriak, bazka-bazka ari diren ardién patxada... Lasaitasuna ematen dit niri Lizarpek, arnasa, eta beste horrenbeste Gaintxipia tontorrak (626 metro)".

Ura eta harria da Mendaro, eta horrek egiten ditu bertako parajeak horren berezi. Mendaro Geoparkean sartuta egon ez arren, Geoparkeko kostaldearen ederra begi kolpe batez ikusteko talaia ezin hobea da Gaintxipia mendia. Alde batera, Deba-Zumaia arteko kostaldea, Lastur eta Itziarko mendi-gainak; beste aldera inguruko mendi-tontor mitikoak: Oiz, Anboto, Erlo, Udalaiz... "Zer ez da ikusten han goitik! Bizi garen lekuan bizitzeagatik, zein zorionekoak garen konturatzeko ere balio du hara igotzeak", dio. Igoera errazeko mendia da Gaintxipia. Mendaroko plazatik 4 kilometro pasatxoko bidea dago errepidex Lizarperaino, eta

MAITE MAIORA - Korrikalaria



"Lasaitasuna ematen dit niri Lizarpek, arnasa, eta beste horrenbeste Gaintxipia tontorrak"

handik gora, 330 bat metro. Baina mendia aisialdirako duenak eta kilometroak pilatzeko afizioa duenak nekez aukeratu ohi du bide zuzena. Lizarpera zortzi bihurguneen bidetik igotzea gustukoagoa du Maiorak. "Bide zoragarria da, Kilimon bailaran barneratzeko".

- **Distantzia Mendaroko plazatik:** 4 kilometro pasa dago oinez Lizarpera, bide zuzenetik. Handik Gaintxipia tontorrera (626 metro) 300 bat metro.
- **Zailtasuna:** Erraza

MUTRIKU - Burumendi



Andoni Basterretxea (Mutriku, 1964) Delirium Tremens taldeko abeslari eta gitarra-jolea da. 1985. urtean sortu zuen taldea Patxi Irisarri eta J. J. Yurritarekin hirukoa osatuz, eta gerora, Iñigo Muguruza batu zitzaien. Handik aurrera, laukote gisa funtzionatu zuten. 1991n desegin zuten taldea, baina 2019an berriz elkartu ziren, Iñigo Muguruzaren omenezko kontzertu batean parte hartzeko. "Eta, berotu egin ginen", esan du Basterretxeak. "Denok musika jotzen jarraitzeko gogoz geunden, eta kanta berri batzuk sortzea erabaki genuen, disko berria osatzeko". Horrela, 2021ean, taldea desegin eta 30 urtera, eszenatokietara itzuli ziren.

Mutrikun dauka sorlekua taldeak, Gipuzkoako ipar-mendebaldeko erpinean, Bizkaiarekiko mugan. Iparraldean Bizkaiko golkoa; hegoaldean Mendaro; ekialdean Deba; eta mendebaldean Ondarroa, Berriatua eta Markina (Bizkaia) ditu mugakide. Mutrikuk arrantza bere-berea izan du, eta udalerraren armarrian ere arpoiz jotako balea ageri da. Bereziak ditu kaleak, eta bereziak inguruak ere. Hondartza du, eta mendiz inguratuta dago. Basterretxeak Burumendi ingurua du gustukoena, ume-umetatik. Hirugarren hondartza gainean dago, flyschean barneratuta. "Umetatik gustatzen zait, oso leku berezia da niretzat. Neguan ere

ANDONI BASTERRETXEA - Musikaria



"Pretilean eseri eta Burumenditik itsasoari begira egotea gustatzen zait"

txakurra hartuta, sarritan joan nintzen". Pinuak zeuden lehen, baina orain garbituta dago dena, eta bidea ere berrituta dago: "Pretilean eseri eta itsasora begira egotea gustatzen zait, lasai. Oso leku polita da".

- **Distantzia:** Herrian bertan dago, portutik gertu.
- **Zailtasuna:** Erraza
- **Interes puntuak:** Portua, hondartzak, taberna dago

SORALUZE - Lau Baselizen Ibilbidea



Pedro Lete (Soraluze, 1953) ibiltari askoa da. Ezustekorik ez bada egunero egiten du ibilbide bat, normalean bidegorritik, baina giro ona badago gora, mendira joaten da. Ibiliaz ezagutu ditu ibilbideak. Horietako bat da Lau Baselizen Ibilbidea.

Ibilaldi "oso polita" delako aukeratu du. "Ia lau ordukoa da, baina barruan dago sartuta argazkiak ateratzea gehi paisajeak ikustea", dio Letek.

Ezozki-bidea da abiapuntua, handik gora hartu eta Ezozki auzora jo behar baita. "Ezozikoa da lehen ermita; hura ikusi eta gero gora segi eta bertan dago San Rokeko ermita. Ondoren, hartu behar da hormigoizko bidea, errepide handiko bidegurutzera iritsi arte. Hor, errepidetik beherantz hartu eta San Andres auzora iritsiko zara; han dago hirugarren ermita. Gero, San Andrestik Txurrukarako bidea hartu behar da, bidegurutzera ailegatu arte; han, berriz, beherantz, Osuma baserrirantz, Txurrukara ailegatu arte. Hantxe dago laugarren ermita: San Inazio. Eta ibilaldia borobiltzeko, Txurruka jatetxean hamarretako edo bazkari ederra egin!".

Pedro Letek esan du familian egiteko moduko ibilaldia dela: "Aldapa dago, baina dena da asfalto, ez dago harri artean edo sasi artean ibili beharrik, garbi-garbi dago. Nik urtean bizpahiru bider egiten dut. Urtaro guztietan egin daiteke eta bidean denetik ikus daiteke: katamixarrak, azeriak, kukuak... Landare

PEDRO LETE - Ibiltaria



"Ermitak, auzoak, animaliak, landareak eta paisajeak... denetik ikus daiteke"

aldetik ere denetik dago, farmazia bat da: berbenak, milamores edo belar bedeinkatua, pasmo belarra, kukufrakak, teresitak, zaingorria, zentaurea, pasiflora... Etorri eta ikusi".

- **Distantzia:** 15,29 km
- **Zailtasuna:** Erraza
- **Aipatzekoak:** Ezozki auzoa eta Ezoziko Andre Mariaren ermita, San Roke ermita, San Andres auzoa eta San Andres ermita eta Txurruka auzoa eta San Inazio ermita.

AGENDA

DEBA

Ekainak 25	22:00	"Olatu arteko txalupa arraroa"	Ikuskizun musikatua eta poesia	Plaza Zaharrean
Uztailak 1	22:00	"TENE"	Bertso saioa	Plaza Zaharrean
Uztailak 2	19:30	Debako Musika Banda	Kalejira	Herriko kaleetan zehar
Uztailak 6-10	-----	Deba Jazzez Blai festibala	Kontzertuak	Herriko txoko ezberdinetan
Uztailak 8	22:00	"Begiradak"	Literatura, irudiak eta musika	Plaza Zaharrean
Uztailak 9	22:00	Aitzuri Abesbatza	Kontzertua	Elizako klaustroan
Uztailak 15	22:00	"GenEroa"	Dantza ikuskizuna	Plaza Zaharrean
Uztailak 22	22:00	Habi	Kontzertua	Plaza Zaharrean
Uztailak 29	22:00	"Album"	Antzerkia	Plaza Zaharrean
Uztailak 30	23:00	Musika Banda	Dantzaldia	Foruen plazan
Abuztuak 6-10	-----	Itziarko Kopraixak	Jai nagusiak	Herri osoan zehar
Abuztuak 13	-----	Deba-Reus topaketa	Herrialde katalanetako ekimen kulturalak	Herri osoan zehar
Abuztuak 14-18	-----	San Roke jaiak	Jai nagusiak	Herri osoan zehar

EIBAR

Ekainak 28-30	22:30	Ikus-entzunezkoen astea	-----	San Andres elizako klaustroan
Uztailak 3	11:00	Usartza Txistulari Banda	Kalejira	San Kristobal auzoan
Uztailak 8	22:00	Euskadiko Ikasleen Jazz Orkestra	Kontzertua	Errebal Plazan
Uztailak 8-10	-----	Amaña auzoko jaiak	Ekimen ezberdinak	Amaña auzoan
Uztailak 8-10	-----	Lambretta Eibar XVII Topaketa	-----	-----
Uztailak 10	11:00	Usartza Txistulari Banda	Kalejira	Amaña auzoan
Uztailak 15	23:00	Eibarko Musika Banda	Kontzertua	Toribio Etxebarria kalean
Uztailak 15-17	-----	San Kristobal auzoko jaiak	Ekimen ezberdinak	-----
Uztailak 4-11-18-25	22:00	Zinema kalean	Zinema	Untzagan
Abuztuak 6	-----	San Salvador jaiak	Ekimen ezberdinak	-----
Abuztuak 15	-----	Andra Mari jaiak	Ekimen ezberdinak	Azitain auzoan

ELGOIBAR

Ekainak 24	19:00	Nahaste Borraste kirol proba	-----	Kalegoen plazan
Ekainak 25	09:00	Nekazari eta ganadu feria	-----	Kalebarren plazan
Ekainak 28,29,1,2	-----	San Pedroko jaiak	Ekimen ezberdinak	Idotorben
Uztailak 8-10	-----	Urazandiko jaiak	Ekimen ezberdinak	Urazandi auzoan
Uztailak 8	22:30	'Elkano, lehen mundu bira'	Aire libreko zinea	Kalegoen plazan
Uztailak 9	22:30	'Padre no hay más que uno'	Aire libreko zinea	Kalegoen plazan
Uztailak 15	22:30	'Wonder woman 1984'	Aire libreko zinea	Kalegoen plazan
Uztailak 16	22:30	'Corre como una chica'	Aire libreko zinea	Kalegoen plazan
Uztailak 22	18:00	Folklore jaialdia	Dantzaldia	Maalako parkean
Uztailak 23	22:30	'La pequeña Suiza'	Aire libreko zinea	Kalegoen plazan
Uztailak 24	10:30	Pilota txapelketa	Kirola	Sigma auzoan
Uztailak 24	-----	Sargoateko erromeria	Erromeria	Sargoaten
Uztailak 29	22:30	'Greenland: el último refugio'	Aire libreko zinea	Kalegoen plazan
Uztailak 30	22:30	'Agur Etxebeste'	Aire libreko zinea	Kalegoen plazan
Abuztuak 3	-----	Santumotz Eguna	-----	Santumotz lautadan
Abuztuak 6	-----	Sallobenteko jaiak	Ekintzak egunean zehar	Sallobenten
Abuztuak 10	-----	San Lorentzo Eguna	Meza	Sallobenten
Abuztuak 16	-----	San Roke Eguna	-----	Azkue auzoan
Abuztuak 23-28	-----	San Bartolome jaiak	Herriko jai nagusiak	Herri osoan zehar
Irailak 2	-----	San Antolin Eguna	Arriaga auzoko festak	Arriaga auzoan

ERMUA

Uztailak 2	-----	Afrika-Ermua V. Jardunaldiak	Hainbat ekitaldi	Orbe Kardinalaren plazan
Uztailak 7-10	-----	San Lorenzo auzoko jaiak	Hainbat ekitaldi	San Lorenzo auzoan
Uztailak 8-9	-----	Neska gazteen II. Topaketak	Hainbat ekitaldi	Herriko txoko ezberdinetan
Uztailak 15	17:30	Zirika Zirkus	Ikuskizuna	Orbe Kardinalaren plazan
Uztailak 16	23:30	Skakeitan	Kontzertua	Orbe Kardinalaren plazan
Uztailak 18	22:30	Rafa Rueda	Kontzertua	Martxoaren 8a plazan
Uztailak 19	22:30	Petti	Kontzertua	Martxoaren 8a plazan
Uztailak 23	22:30	La Oreja de Van Gogh	Kontzertua	San Pelaio plazan
Uztailak 24-27	-----	Ermuko Santixau jaiak	Hainbat ekitaldi	Herriko txoko ezberdinetan
Abuztuak 1	22:00	'Jojo Rabbit'	Udako zinea	Orbe Kardinalaren plazan
Abuztuak 2	22:00	'Explota Explota'	Udako zinea	Orbe Kardinalaren plazan
Abuztuak 3	22:00	'Space jam. Aro berria'	Udako zinea	Orbe Kardinalaren plazan
Abuztuak 8	22:00	'La boda de Rosa'	Udako zinea	Orbe Kardinalaren plazan
Abuztuak 10	22:00	'Jungle Cruise'	Udako zinea	Orbe Kardinalaren plazan
Abuztuak 17	22:00	'Cuñados'	Udako zinea	Orbe Kardinalaren plazan
Abuztuak 22	22:00	'Errementari'	Udako zinea	Orbe Kardinalaren plazan
Abuztuak 24	22:00	'A todo tren'	Udako zinea	Orbe Kardinalaren plazan

MALLABIA

Abuztuak 14-16	-----	Andra Mari jaiak	Ekimen ezberdinak	Herriko txoko ezberdinetan
----------------	-------	------------------	-------------------	----------------------------

MENDARO

Uztailak 2	16:00	Jabier Ezenarro Oroitzarrea	Txirrindularitza	-----
Uztailak 8	19:00	Gararock jaialdia	Aurkezpen kontzertua	Santa Kruzkuako parkean, Azpilgoetan
Uztailak 22-26	-----	Santa Ana jaiak	-----	-----
Abuztuak 15	-----	Andra Mari jaiak	-----	-----

MUTRIKU

Uztailak 1-3	-----	Elkano Mundubira	-----	-----
Uztailak 2	22:00	Herriko elkarteen kontzertua	-----	Plazan
Uztailak 2	-----	Mutrikuko Bandera	-----	-----
Uztailak 16	-----	Merkatu txikia eta atun errea	-----	-----
Uztailak 16	22:00	Anaiarte abesbatzaren kontzertua	-----	-----
Uztailak 21-25	-----	Malen jaiak	Ekimen ezberdinak	Herrian zehar
Uztailak 30	22:00	Kantu bat gara	-----	-----
Abuztuak 3	22:00	Aire libreko zinea	-----	-----
Abuztuak 10	22:00	Aire libreko zinea	-----	-----
Abuztuak 17	22:00	Aire libreko zinea	-----	-----
Abuztuak 6	22:00	Neomak	-----	-----

SORALUZE

Uztailak 9-11	-----	San Andreseko jaiak	Ekimen ezberdinak	-----
Uztailak 22-26	-----	Soraluzeko jaiak	Ekimen ezberdinak	-----
Abuztuak 14-16	-----	Andra Mari jaiak	Ekimen ezberdinak	-----
Abuztuak 15	10:00	Dolmenen ibilbidea	Bisita gidatua	Karakaten

Turismo etikoa Debabarrenean

Euskadiko Kode Etikoaren bueltan jasotako prestakuntza eta konpromiso ibilbidea osatu duten turismo eragileei Kode Etikoaren zigilua eman die Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak. Araba, Bizkai eta Gipuzkoako 530 enpresak eta erakundeak jaso dute aitortza 2020an kode hau sortu zutenetik, eta horien artean Debabarreneko hamazazpi enpresa eta erakunde daude.

Euskadiko Turismoaren Kode Etikoa Turismorako Munduko Kode Etikoaren egokitzapena da, gure kulturaren eta nortasunaren berezko ezaugarrietan oinarrituta eta 2030 Agendan ezarritako Garapen Jasangarrirako 17 Helburuetan oinarrituta.



- Arriola Txiki (Deba-Itziar)
- Begi Bistan
- Belaustegi Baserria (Elgoibar)
- Debabarrena Turismo
- Debako Turismo Bulegoa
- Eibarrooms Auto Check-In (Eibar)
- Endañeta Berri (Deba-Itziar)
- Euskal Kostaldeko Geoparkea
- Hotel Arbe (Mutriku)
- Mélida Ostaturua (Ermua)
- Mutrikuko Turismo Bulegoa
- Txurruka Jatetxea (Soraluze)
- Hotel Kanala (Deba-Itziar)
- Perlakua Saka (Deba-Itziar)
- Txindurri Iturri (Deba-Itziar)
- Zubeltzu Torre (Deba-Itziar)
- Zumardi (Deba)

BELAUSTEGI
— BASERRIA —

SAN MIGUEL GAINA, 44 . 20870 ELGOIBAR 943 74 31 02 WWW.BELAUSTEGI.COM

Gospel doinuek hartu zuten zapatuan Kalegoen plaza



Goizargi Gospel Choir taldeak eta Elgoibarko Udal Musika Bandak kontzertu berezia eman zuten zapatuan Elgoibarko Kalegoen plazan. Euskal Herriko gospel ahots onenak entzuteko aukera izan zuten plazara batu zirenek. Goizargi Gospel Choir taldea erreferentea da inguruotan gospel estiloan. Ramon Escalek zuzenduta, koru eta bandarako moldatutako AEBetako gospel kantari ospetsuen hainbat abesti interpretatu zituzten zapatu gauean Kalegoen plazan: Goizargikoez jarri zituzten ahotsak eta Elgoibarko Udal Musika Bandak musika. Elgoibarko Udal Musika Bandak aurrez ere antolatu ditu era honetako kontzertu bereziak edo kolaborazioak eta duten harrera ikusita, ez du ematen zapatukoa azkena izango denik. Bideoa: barren.eus

Zazpi film emango dituzte Elgoibarren aire libreko zineman

Zazpi film proiektatuko dituzte Elgoibarren, aire libreko zineman. Uztailaren 8an emango dute estreinakoa: *Elkano lehen mundu bira* eta ondorengoak izango dira beste filmak: *Padre no hay más que uno* (uztailarek 9), *Wonder Woman 1984* (uztailak 15), *Corre como una chica* (uztailak 16), *La pequeña suiza* (uztailak 23), *Greenland: el último refugio* (uztailak 29) eta *Agur Etxebeste* (uztailak 30). Proiektzio guztiak Kalegoen plazan izango dira, 22:30ean hasita.

Euskal musikagintzako atzoko eta gaurko kanta ezagunak, Kantaldian



Ameikutz Musika Eskolakoek aurten ere antolatu dute Kantaldia Herriko Enparantzan, ikasturte amaierako jaialdiarekin batera. Juan Arriola eta Iñigo Ruiz de Gordejuela musika eskolako irakasleak eta Malwina Masternak musikari poloniarra izan ziren Kantaldiko protagonista nagusiak, eta euskal musikagintzako hainbat kantu ezagun interpretatu zituzten. Kontzertuko une batean, baina, publikoari ere dei egin zien Arriolak oholtzara igotzeko, eta izan zen kantura animatu zenik. Kantaldiko argazkiak barren.eus webgunera igo ditugu.

Musika Eskolako lau ikasle, kontserbatoriora



Inazio Bereziartua musika eskolako lau ikaslek Kontserbatorioan gradu profesionala ikasteko sarrera-proba gainditu dute. Oihan Goñi (gitarra), Nahia Olivares (biolina), Maialen Arriola (perkusioa) eta Elaia Etxaniz (Saxofoia). Musika Eskolako zuzendaritzatik zorionak eman dizkiete, eta zorterik onena opa diete euren ibilbide berrian.

Mendaroko ondare arkeologikoa ikertu eta babesteko hitzarmena sinatu dute

Mendaroko haitzuloetan indusketa arkeologikoak egiteko hitzarmena sinatu du Mendaroko Udalak EHUko Arkeologia Saileko ikerketa talde batekin. Hitzarmen horren bidez egingo diren azterketek Mendaroren historiaurreko ondarea hobeto ezagutzeko, eta bide batez, babesteko neurriak hartzeko balio dezake, bai eta aurkikuntza berriei bide emateko ere. Mendaroko Udalak 2.500 eurorekin lagunduko du ekimena.

EH Bilduk oharra zabaldu du horren harira poza agertuz. Ondarea babesteko neurriak hartzea aspaldiko eskaera du Mendaroko EH Bilduk. Morkaiko-Leizarpe espeleologia taldearen proposamenak bere egin ditu agintaldi honetan eta hauteskunde-kanpainan bertan jaso zuen Mendaro Euskal Kostaldeko Geoparke proiektuan integratzeko eskaera, marko horren barruan ondarea babesteko jarduera ezberdinak egiteko aukera ikusten zutela arrazoituta. "Ikuspegi geologiko nahiz arkeologiko batetik balio handia



duten inguruak dauzkagu Mendaron eta EH Bildutik ezinbestekoa ikusten dugu, ondare hori behar bezala ikertzea eta babestea", jaso dute prentsa-oharrean. "Orain artean, Udal gobernutik jaramonik egin ez diguten arren, badirudi orain, eta EHUtik datorren proposamen bat bitarteko, esku-eskura eman zaion eskaintza hau onartzea erabaki duela Mendaroko Udalak", gehitu dute.

50 bat umek parte hartu dute Mendaroko dantza moderno jaialdian

Ikasturte amaierako jaialdia egin zuten Mendaron dantza modernoan ari diren 50 bat ikaslek eta haien irakasleek bariku iluntzean. Adinka banatu zituzten taldeetan eta talde bakoitzak bi-hiruna kantu dantzatu zituen. Argazkiak *barren.eus*-en.



Santanetarako danborradetarako entseguak

Uztailaren 24an egingo dute Mendaron haurren danborrada, eta biharamunean, nagusiena. Arno Guraso Elkarteak antolatzen du lehenengoa, eta Udalak bigarrena, eta bietarako entsegu-egunak zehaztu dituzte antolatzaileek, izena emateko epea zabaltzearekin batera. Umeen danborradan LH1etik LH6ra arteko ikasleek parte hartu ahal izango dute danbor eta kupel jole moduan, baina HH5eko ikasleei ere zabaldu diete aukera ospakizunean parte hartzeko, goxokiak banatzen. Haurren danborradan parte hartu nahi duenak ekainaren 28ra arteko epea du izena emateko, eta izena emandakoek lau entsegu egun izango dituzte: uztailaren 5ean, 12an, 19an eta 21ean, 19:30ean, frontoian. Helduen danborradetarako izena emateko epea ere zabalik dago eta interesa dutenek entsegu egunetan frontoira agertzea besterik ez dute. Uztailaren 6an, 13an eta 20an izango dira entseguak, frontoian, 21:00etan.

Lau eguneko San Pedro jaiak ospatuko dituzte Idotorben ekainaren 28tik uztailaren 2ra

Ekainaren 28an hasiko dituzte jaiak Idotorben, kanpai jotzearekin, eta uztailaren 2a bitartean askotariko ekintzak izango dituzte. Prozesioarekin eta mezarekin hasiko dute San Pedro eguna eta ondoren salda eta txorizoa banatuko dituzte, Armueta harategiari esker. 12:30ean Lagunak pilota elkarteak antolatutako pilota jaialdia izango dute eta 14:00etan auzotarrek eta jubilatuek elkarrekin bazkalduko dute. Unai Andonegik eta Balzola trikitilariak girotuko dute eguna. Hala ere, jaiak ez dira San Pedro egunera mugatuko esan bezala. Egitarau osoa Agendan duzue ikusgai.



Bideoan jaso dute 'Gu ere bertsoan' egitasmoaren barruan eskola-umeek ikasturtean egindako lana



LH4 eta LH5eko 250 ikasle inguruk parte hartzen dute ikasturtero Elgoibarko Udalak finantzaturako eta Gipuzkoako Bertsozale Elkarteak gidaturako *Gu ere bertsoan* egitasmoan. Ikasleek astean ordubete eskaini diote aurten ahozkotatua lantzeari Eneko Beretxinaga soraluzetarrarekin eta bertsoa izan dute horretarako tresna. Eta ikasturte bukaerako jaialdia ere prestatu dute, ikastetxean landutakoa gurasoei erakusteko. Aurten, baina, bideoan grabatu du 11 ikusteko enpresak eta Elgoibarko Udalaren youtubeko kanalean dago ikusgai.

Aintzane Urbietaren 'Aurten bai' irudia garaile Mendaroko lehiaketan

Santanetako kamisetarako irudia lehiaketa bidez aukeratu du Mendaroko Udalak, eta lau aukeren artean Aintzane Urbietak diseinatutako *Aurten bai* irudiak jaso ditu boto gehien (%38,8). Vanesa Mateosen *banderinak* izan da bigarren bozkatuena (%22,4) eta Paula Herasen *panderoa*, hirugarrena (%20,4). Aintzane Urbietak 200 euroko saria jasoko du.



'Apaiz kartzela' dokumentala proiektatuko dute bihar, Mendaron

Oier Arantzabal, Ritxi Lizartza eta David Palleresen lana da *Apaiz kartzela* dokumentala, eta Madril, Galizia, Katalunia eta Euskal Herriko 53 apaizek Frankismoan bizitakoak kontatzen ditu. Proiektzioa San Agustin kulturgunean izango da, bihar, hilak 25, 19:30ean.

■ Mendarorako beste sarbide bat eraikitzeko aurreproiektua aurkeztu dute

✍️ Ainara Argoitia

Herrigunera sartzeko sarbide bakarra du Mendarok eta herri bakarra da Gipuzkoan zubi baten mende dagoena. Horregatik, beste zubi bat eraikitzeko nahia sarri ibili da bateko eta besteko udal agintarien ahotan azkeneko urteetan, gaurko zubitik trafiko handia pasatzen delako eta zubiak duen geometria ere ez delako egokiena bereziki industrialdera iristen diren ibilgailu astunentzat eta ospitalera joan-etorrian

Errepide-sare nagusitik Mendarora bigarren sarbide bat egiteko aurreproiektua edo proiektuaren zirriborroa aurkeztu zuten eguaztenean Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Mendaroko Udalak, udaletxean eman zuten prentsurrekoan. Zehaztu zuten, datorren astean edo hurrengoan aurreikusten du Foru Aldundiak proiektuaren idazketa esleitzeko lizitazioaren deialdia egitea. Hiru bat hilabete irauten du epe horrek, eta hori egiteko enpresa aukeratzen dutenean, sei hilabeteko epea izango du hark exekuzio-proiektua idazteko.

dabiltzan autobusentzat. Aintzane Oiarbide Bide Azpiegiturarako diputatuak berak ere aitortu zuen eguaztenean urte askoan Foru Aldundian "buelbaka" ibili den proiektu-eskaera izan dela hau.

Asteon udaletxean aurkeztu dutena proiektuaren zirriborroa edo aurreproiektua da. Prentsarentzako deialdia izan zen eguaztenekoa, eta Aintzane Oiarbide diputatuaz gain, Iñaki Arregi alkateak eta Mikel Uribechebarria Bide



Aintzane Oiarbide diputatua eta Iñaki Arregi alkatea bide berria igaroko den puntuan.

Azpiegituretarako teknikariak eman zituzten azalpenak, baina aurkezpenera herritar gutxi batzuk ere batu ziren, proiektuan kaltetuak direnak eta EHBilduko kideak, besteak beste, zeintzuek salatu zuten iazko ekainean Mendaroko Udalak Aldundian aurreproiektua -bi proposamen ziren- aurkeztu zuenetik ez dutela informaziorik jaso, "hilero galdetu arren". Informazioa jasotzeko lehentasuna herritarrei beharrezan hedabideei eman izana ere salatu zuten EHBildukoek, eta zubia premiazkoa dela ulertuta ere, prozesuak beste bat izan behar lukeela zehaztu zuten gero, prentsaurrekoaren ondoren: "Guk esaten dugu aukera guztiak aztertu behar direla, jendea ezagutarazi eta gero erabaki".

Mendaroentzat eta Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat erabaki "historikoa" dela nabarmendu zuen Aintzane Oiarbide diputatua. Ospitalerako sarrera-irteerak eta indusrialderako irisgarritasuna hobetuko dela nabarmendu zuen Oiarbidek eta bide-segurtasuna hobetzen ere lagunduko duela sarbide berriak. Antzeko hitzak izan zituen Iñaki Arregi alkateak eta gehitu zuen herriko sektore ekonomikoari ere erraztasunak emango dizkiola.

Sarbide berriaren ezaugarriak

Uribetxeberriak azaldu zuen 2008ra-edo egin behar dela atzera proiektua azaltzeko. Urteetan azterketa ezberdinak egin dituzte ikusteko zer aukera zeuden eta Udalak bi aukera aurkeztu zizkion Aldundiari iaz. "Kalte gutxien" eragiten zuten bi proiektu haietako baten oso da antzekoa orain Aldundiak aurkeztu duena [Beste proiektuan Irabane baserriaren gainera pasatzen zen bidea eta Iturgainen atari aurretik]. Haren arabera, sarbide berriak 840 metro neurtuko ditu eta 634 errepedea industrialdeekin eta ospitalearekin lotuko ditu. Hiru biribilgune izango ditu eta Deba ibaiaren eta trenbidearen plataformaren gainera joango den 102 metroko zubi bat. Lehenengo biribilgunea, 634 errepedean bertan eraikiko dute eta 36 metroko kanpo-diametroa izango du. Errepide nagusiaren



eta bide berriaren arteko elkargunea izango da. Lili galdaragintza enpresaren ostetik eta Bloques Etxeberriaren aurretik pasatuko da bidea, ibai muturreraino. Zubi batek lotuko ditu bi aldeak gero, ibaiaren eta trenbidearen gainera. Ibaiaren beste aldean, Bixuete baserria dagoen puntuan, eraikiko dute bigarren biribilgunea, 42 metroko kanpo-diametroa izango duena eta Igartualdea eta Erramone industrialdeak lotuko dituen bidea. Goragoan, Kapaingoa etxearen atzeko aldean eraikiko dute hirugarren biribilgunea, Mendaroko ospitalerako lotura. Bide berriak 3,5 metroko bi errail izango ditu trazatu osoan, eta ibilbidearen zatirik handienean, metro bateko bazterbidea bi aldeetara -Salbuespen bakarra Aizkoltxo parean egingo lukete, "babesgunean ez sartzeko". Hor bazterbidea estutzea aurreikusten dute-. Zubi berriak oinezkoentzako bidea ere izango du eskubiko aldetik, zeina erdi galduan egon arren Bloques Etxeberria atzetik igarotzen den oinezkoentzako bide batekin lotuko duten.

Uribetxeberriak azaldu zuen aurreproiektuak hirigintzan, hidraulikan eta ondarean duen eraginari buruzko balorazioa jasotzen duela, badiarelako proiektu honetan gaintu beharreko hiru oztopo nagusi ere: Aizkoltxoko babesgunea, orografia eta kotari dagozkion zailtasunak eta Ura Agentziarekin zuzendu beharreko beste kontuak. Azken horri lotuta, zubi berri batek uholde-arriskuaren kotari eragingo ote dion galdetu zitzaion teknikariari, azkeneko uholdeetan errepidez isolatuta gelditu den herri bakarra izan delako Mendaro Euskal Herrian eta azpiegiturea hauek eragina izan dezaketelako, baina Uribetxeberriak erantzun zuen URA Agentziaren oniritzia baduela obrak eta milimetro bakar batean ez dela handitzen arrisku-kota. Nolanahi ere zehaztu zuen kontsulta horiek guztiak eginak dituzten arren erakunde ezberdinetan, proiektua idaztean berriro ofizialki egin beharreko tramitazioa dela hori. ■



Lehen Nazional mailan jokatu du Alcortak

Estatuko Lehen Nazional mailara igotzeko atarian gelditu zen Sanloko Alcorta Forging Group eskubaloi taldea, Olaizagan jokatu zuten igoera fasean txapelundorde izan eta gero. Orain, baina, 2022-2023 denboraldian Nazional Mailan jokatzera gonbidatu du Espainiako Eskubaloi Federazioak, eta gonbidapena onartu egin du

Sanlok. Hortaz, ospatzeko arrazoi bat gehiago izango du Sanlok denboraldiari bukaera emateko bihar egingo duten Sanlo Festan. Bazkari baten bueltan agurtuko dute denboraldia. Horrez gainera, eskubaloia Kalegoen plazara aterako dute bihar. 2010etik 2013ra bitartean jaiotako neska-mutilak arituko dira eskubaloian, 9:30etik 12:30era.

Diplomak eta sariak banatuta, amaitu dute tenis denboraldia



40 + 15 Tenis eta Padel Elkarteak denboraldiari amaiera emateko ekitaldia egin zuen Mintxetan, aurreko barikuan. Elkarteko hogeit hamar tenis ikasleei diplomak banatu zizkieten ekitaldian, eta denboraldi osoan zehar jokatu dituzten txapelketetako irabazleei sariak ere banatu zizkieten. Honakoak izan dira irabazleak, adinka: Udane Andonegi (jubeniletan) Mikel Goenaga (jubeniletan) eta Martin Rey (infantiletan).

Nahaste Borraste, gaur, Elgoibarren

Nahaste Borraste kirol proba berezia jokatu dute gaur, hilak 24, 19:00etan Kalegoen plazatik hasita. Aurrez izena emandakoek gaur jaso beharko dute dortsala, 18:30ak baino lehenenago. Izena eman nahi dutenek 17:00etatik 18:30era izango dute aukera, Kalegoen plazan. Jokatu zuten azken Nahaste Borrasten, 2019koan, 21 lagunek hartu zuten parte eta Iñigo Lariz eta Ainhoa Lendinez izan ziren azkarrenak.



Arabako San Viator taldeak irabazi du Trinitate Jaietako Taldekako Xake Txapelketa



Hiru xakelariz osatutako hamazazpi talde lehiatu ziren aurreko domekan, Trinitate Jaietako Taldekako Xake Txapelketan, Olaizaga kiroledegian. Elkarren aurka jokatu ostean, Gasteizko San Viator taldeak eskuratu zituen puntu gehien, 42 puntu, hain justu ere.

Abadiñoko hirukoteak lortu zuen bigarren postua, 39,5 punturekin eta Donostiako Gros Xake Taldea ordezkatu zuen taldeak egin zuen hirugarren, 35 punturekin. Elgoibarko bi taldek parte hartu zuten, Zubi Ondo A eta Zubi Ondo B taldeek, eta 10. eta 17. postuetan sailkatu ziren.

Uxue Anzorregi hirugarren pentatloi txapelketan

II. Emakumeen Binakako Euskal Pentatloi Saria jokatu zuten ekainaren 18an Tolosako zezen plazan. Harriarekin, egurrarekin, txingekin eta korrikan lehiatu ziren herri kirolariak, eta

Nerea Arruti eta Amalur Arbelaitz gailendu ziren. Hirugarren postuan sailkatu zen Karmele Gisasola mallabiarrek eta Uxue Anzorregi mendaroarrak osatutako bikotea.

Espainiako auto telegidatuen txapelketako proba jokatu dute Mendaron

Mendaroko Ospas Gain zelaian dagoen zirkuitoan jokatu dute, asteburuan, Espainiako auto telegidatuen B txapelketako bigarren proba puntuagarria. 1:8 TT GAS kategoriako autoentzako txapelketa izango da. Zapatuan, 9:00etatik 19:00ak aldera arte, entrenamentu libreak eta kronometrajea egingo dituzte. Domekan finalak jokatu dituzte, 9:00etatik 15:00etara. Guztira 55 pilotu lehiatuko dira, tartean elgoibartar bat; Altzolako Alex Gonzalez. Azken honek 9 urte besterik ez dituen arren, Espainiako txapelduna izana da juniorretan.





Apustu berezia jokatu dute Mendaron 24 gaztek

Zapatuan, bero-saparik handieneko egunean, apustu berezia jokatu zuten Mendaron gazte-kuadrilla batek. Bero handia zela-eta, izan zuten bakarren batzuek apustua bertan behera laga edo atzeratzeko tentazioa, baina jokatzera erabaki zuten azkenean, ordua aurreratuta. Taldeka, erreleboka, Herriko Enparantzatik Gaintxiara arte nor azkarrago iritsi zen jokoa. Eta jokoan zegoena: ohorea besterik ez; edo hori dena. Hiru laguneko zortzi talde egin zituzten, zozketaz, eta halaxe abiatu ziren 9:00etan lehenengo errelebokoak udaletxe atzetik, korrika. Etxaberako bidegurutzean zituzten zain lagunak lehenengo erreleboia emateko, eta Berasaluzen hurrengoak. Neska eta mutil, hogeita lau lagun ziren guztira, zortzi taldetan banatuta. Korrika ibili zaleak bakarren batzuk, bestelako kirolen batean ibilitakoak beste batzuk, eta denboran kirol askorik egin gabeko bakarren batzuk ere bai tartean. Giro izugarria jarri zuten, baina, batzuek eta besteek.

Bazen apustua irabazteko faboritorik ere aurrez, zozketak ez dakarrelako beti oreka berarekin, eta bete zen kiniela. Alain Zulaika, Patxi Salegi eta Ander Gorostegi gailendu ziren azkenean, 33:00:12ko denbora eginda. Bigarren egin zuten taldea Iker Bedialaunetak, Halef Marquesek eta Hodei Ezpeletak osatu zuten eta 34:34:57ko denbora markatu zuten Gaintxiara puntan. Hirugarren sailkatu zen taldeak, Jon Fernandezek, Josune Mantecak eta Imanol Etxeberriak osatutakoak, berriz, 35:50:99ko

denbora egin zuten. Nolanahi ere, irabazi denek irabazi zuten. Proba bukatu ostean bainua hartu zuten Presapen elkarrekin eta bertan egin zuten hamaiketakoa ere, apustuan parte hartu ez zuten lagunek lotua zutelako hori ere. Eta horiek denak egin ostean, elkarrekin bazkaldu zuten. (argazkiak eta bideoa: barren.eus)



Bazkari baten bueltan agurtu du denboraldia C.D. Elgoibarrek



C.D. Elgoibarreko jokalaria, entrenatzaile eta klubaren bueltako lagunek bazkari baten bueltan agurtu zuten denboraldia, joan zen larunbatean, Sigmako aparkalekuan. Egun ederra pasatu zutela azaldu dute kirol taldeko zuzendaritzakoek. "Zuzendaritza honek eskerrak eman nahi dizkie publikoki boluntario guztiei, eurek gabe ezin delako horrelako ekitaldirik antolatu, eta eskerrik asko baita ere laguntzera eta ondo pasatzera etorri zineten guraso guztioi. Mila esker, bihotz bihotzez". DJ Jon zarauztarrak eta Bilboko El Sapo y el sello taldeak girotu zuten musikaz bazkaria eta bazkalostea. Ohitura duten legez, talde bakoitzeko jokalaria erregularrena eta konpromiso handiena erakutsi duena saritu zituen klubak, eta bi sari berezi ere banatu zituzten: bata Mariano Lopez erregional mailako taldearen entrenatzaileak (goiko argazkian) jaso zuen, "egin duten denboraldi apartagatik", [Erregional mailako talderik onena izan da denboraldi honetan C.D. Elgoibarko gizonen bigarren taldea]. Bigarren saria Eneko Basurtori (goiko argazkian) eman zioten, "azken hiru urteetan klubaren alde egin duen lan bikainarengatik".

JOKALARI SARITUEN ZERRENDA

2. urteko alebinak (mutilak)

- Jokalari erregularrena: Jon Treviño
- Konpromiso handienekoa: Ekain Soto

2. urteko alebinak (neskak)

- Jokalari erregularrena: Sara Etxeberria
- Konpromiso handienekoa: Elene Goikoetxea

Infantil Txiki

- Jokalari erregularrena: Estanis Muguerza
- Konpromiso handienekoa: Oihan Fernandez

Infantil Gorria

- Jokalari erregularrena: Markel Larrañaga
- Konpromiso handienekoa: Manex Sainz

Infantil Txuria

- Jokalari erregularrena: Sabin Galdona
- Konpromiso handienekoa: Mikel Aizpurua

Infantil Berdea

- Jokalari erregularrena: Asier Mejuto
- Konpromiso handienekoa: Yassine Abouleiras

1. maila kadeteak

- Jokalari erregularrena: Juan Gabilondo
- Konpromiso handienekoa: Mikel Larrinaga

Ohorezko Kadeteak

- Jokalari erregularrena: Gorka Alzaga
- Konpromiso handienekoa: Ander Aizpurua

Kadeteak (neskak)

- Jokalari erregularrena: Leire Varona
- Konpromiso handienekoa: Marina Zubiaurre

Ohorezko jubenilak

- Jokalari erregularrena: Javier Garcia
- Konpromiso handienekoa: Xabi Arriola

Erregionala

- Jokalari erregularrena: Iker Gil
- Konpromiso handienekoa: Amets Isasti

Emakumeak seniorrak

- Jokalari erregularrena: Izaro Iriondo
- Konpromiso handienekoa: Saioa Aranburu

Haundi

- Jokalari erregularrena: Julen Guillo
- Konpromiso handienekoa: Unai Arriola

Pala txapelketako finala, domekan

Elgoibarko Emakumezkoen Binakako Pala Txapelketako finala jokatuko dute domekan, ekainaren 26an, Kalegoen plazako frontoian (euria egingo balu, Ikastolako frontoian). Yolanda Mateosek eta Maria Badiolak osatutako bikoteak Amaia Aizpuren eta

Elaia Oiartzabalen aurka jokatuko du finala, 12:45etik aurrera. Aurrez, 11:45ean, hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeko partida jokatuko dute bi bikote mutrikuarrek: Idoia Arrillagak eta Eva Ibarrolak Maite eta Iratxe Barruetabeña ahizpen aurka.

LANA

Eskaerak

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan edo orduka. **662 460 266**

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan edo orduka. Gauzez lan egiteko prest. Titulua daukat. **631 425 686**

Garbiketa lanak egin edo adinekoak zainduko nituzke. Esperientzia eta soziosanitario titulua ditut. **631 212 497**

Umeak zaintzeko prest nago, orduka. Esperientzia eta erreferentzia onak ditut. **632 721 342**

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Malgutasuna. **632 915 336**

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka. **658 273 486**

Adinekoak zainduko nituzke. Esperientzia handia eta erreferentziak ditut. Autoa eta gidabaimena ere bai, eta baserrietan lan egiteko aukera. Soziosanitario titulua daukat. **602 834 107**

Adinekoak zainduko nituzke, orduka. Esperientzia handia eta erreferentziak ditut. **631 030 642**

Etxe, enpresa eta tabernetan garbiketa lanak egiteko pest nago. Orduka. Esperientzia eta erreferentziak ditut. **632 721 342**

Eskaintzak

Etxeko langilea behar da uztailan ordezkapen bat egiteko. **648 203 775**

OSPAKIZUNAK

Sigma auzokoan bazkaria, Uztailaren 23an, Sigmako frontoian. Izena emateko 50€ sartu behar dira Laboral Kutxako kontu honetan, uztailaren 10erako: ES53 3035 0007 22 0070075881

Ile-apaintzaile euskaldun eta esperientziaduna behar dugu, Zarauzko ile apaindegi batean lan egiteko. **943 890 281**



ETXEBIZITZAK

Bi pertsonantzako apartamentua alokagai Cadizen, uztailerako. **653 733 457**

IBILGAILUAK

Scooter tolesgarria salgai. I-Lase Apex modeloa, erdiberria, egoera ezin hobean. **659 329 118**




 <p><small>Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas Euzkoako Enkainatutako Administrazioaren Lantalde Kontseilua</small></p>  <p>ROSA Mª PINTADO</p> <p><i>Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p>660 969 679 rosapf@telefonica.net</p>	<p>Bizilagunen komunitate bateko aktari buruzko informazioa ohar taulan jartzeak etxebaberen baten intimitateari eragiten badio, izan daiteke arazoa komunitatearentzat?</p> <p>Nire ustez, adierazpen eta informazio-askatasun eskubidearen eta ohore-eskubidearen arteko gatazkan adierazpen eta informazio askatasun eskubidea gailendu behar da. Izan ere, informazioa interes orokorrekoa eta egiazkoa izateak muga bakarra eduki behar du: ematen diren datuak informatzeko ematea bakar-bakarrik. Kontuan hartu behar genuke ohore-eskubide hausterik ez dagoela aktan jasotakoak komunitateko etxebaberen interesekoak direnean eta aktaren edukia jabe guztiei zabaltea araudiak zehaztutako ohiko funtzionamenduaren parte denean.</p> <p> Ondorioa: Bilera batean aktara eraman den informazio garrantzitsua ezin da ohore-eskubidearen urratze gisa hartu. Era berean ezin da eskubide haustea izan aktaren edukia zabaltea. Izan ere, araudiaren arabera, komunitate baten ohiko funtzionamendurako ezinbestekoa da jabeen bilera batean hitz egindako gai garrantzitsuen edo hartutako erabakien berri ematea. Komunitate guztietan akta baten bidez jakinarazi eta zabaldu behar da informazioa, prozedura legalak hala ezartzen duelako.</p> <p>GOAR AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
---	---

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira Barreneko bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo 688 634 044 bidalita.



2020an ezin izan genuen ospatu, baina aurten bai! Primeran pasatu genuen 50 urtekoen kinto bazkarian. Eskerrik asko guztioi.

1947an jaiotakoek 75. urteurrena ospatzeko bazkaria egin genuen ekainaren 11n. 36 lagun bildu ginen, 20 gizonetako eta 16 emakumetako, eta primeran pasatu genuen.



Bihar zure 10. urtebetetzea ospatzeko familia guztia elkartuko gara. Ea gustuko sorpresak izaten dituzun! Zorionak, **Cloe** maitea.

Zorionak, **Gorka**, gaur 8 urte bete dituzulako. Muxu pila bat familiako eta bereziki, Naroaren eta Juneren partez.

Bihar 7 urte! Zorionak, **Eneko!** Ondo pasa eta muxuak familiako guztien partez.

LAGUNAK
colchonería textil hogar

Komertzioekin lan egiten dugu (etxeko ehungintzekin eta jantziekin) TARIFA BEREZIAK!

Ba al duzu konpondu beharreko arroparik? Ekarki, eta berri-berri utziko dizugu, zeure neurrira. Jantzigintzarako makina bereziak ditugu, edozein ehun konpondu ahal izateko:

PUNTUZKO EHUNAK, TXIRRINDULARITZAKO MAILOTAK ETA KULOTEAK, LARRUA, ZETA ETA ABAR LUZE BAT...

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978
www.textillagunak.com

BARREN astekariak kazetaria behar du asteburuetan lan egiteko



ESKATZEN DA:

- Elgoibarren eta Mendaron dauden ekitaldien jarraipena egitea.
- Argazkilaritza eta bideogintzaren oinarritzko ezagutzak.
- Webgune eta sare sozialen ezagutza.

Interesatuak bidali CV helbide honetara: **barren@elgoibarkoizarra.eus**

24 BARIKUA

19:00 Elgoibar BHI Institutuko diploma banaketa. Herriko Antzokian.

19:00 Nahaste Borraste kirol proba. Kimetz elkarteak antolatuta, Kalegoen plazan.

19:00 Santana jaietako egitaraua ixteko bilera irekia, Mendaroko Lagun Betikoak egoitzan.

20:00 Elkarretaratzea. Sarek deituta, Kalegoen plazan.

25 ZAPATUA

Azken zapatuko feria

9:00 Elgoibarko baserrietako produktuen salmenta, Kalebarren plazan.

11:00 Txosna, Urajai elkarteak kudeatuta.

12:00 Umeentzako tailerrak, Kalebarren plazan.

Eguerditik aurrera Ganadu erakusketa.

19:30 Dokumentala: 'Apaiz kartzela'. Mendaroko San Agustin kulturgunean.

27 ASTELEHENA

18:00 Hausnarketa taldea: 'Ez ditugu gizonezkoak gorroto'. Loredi Salegik gidatuko du saioa. Lilan.

28 MARTITZENA

19:00 Elkarretaratzea: LGTBI+ eguna. Narrutsik talde feministak deituta, Kalegoen plazan.

Idotorbeko jaiak

28 MARTITZENA

19:00 Jaiei hasiera emateko txapliguak eta kanpai-jotzea.

29 EGUAZTENA

11:00 Meza eta prozesioa.

Ondoren, salda eta txorizoa, Armueta harategiak eskainita.

12:30 Lagunak pilota elkarteak antolatutako pilota partidak.

14:00 Auzotarren eta jubilatuen bazkaria. Egun guztian zehar Unai Andonegi eta Balzola trikitilariak.

1 BARIKUA

20:30 Lagunarteko afaria, San Pedro elkartean. 30 euro pertsonako.

Ondoren, mus txapelketa. Izen-ematea: 25 euro.

2 ZAPATUA

12:30 Bolo txapelketa.

16:30 Umeentzako jolasak eta Russoren animaliak.

20:00 Triki mendi buelta.

21:00 Lagunarteko afaria, San Pedro jatetxean (943 740 010).

23:00 Gaupasa, Unai eta Oier taldearekin.

20:00 Sorpresa, eta ondoren parrillada, doan, Egi-Maite gourmetek eskainita.

Orgatilaren zozketa zapatuan egingo dute, goizaldean.



Eta, Debabarrenean zer?

San Joan jaiak, Eibarren

Atzo hasi ziren Eibarko San Joan jaiak, eta datozen egunotan denetik izango da, herritarren gozameneko. Kultur ekitaldiak, kontzertuak, kirol saioak... Herriko txoko desberdinetan aurkituko duzue animazioa.

Botika ordutegiak: 09:00-13:00 7 16:00-20:00

GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00 Iluntzean: 20:00-22:00 Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

<p>24 BARIKUA Egunez ■ Oruesagasti Iluntzean Yudego</p>	<p>25 ZAPATUA Egunez Barrenetxea Iluntzean Barrenetxea</p>	<p>26 DOMEKA Egunez Barrenetxea Iluntzean Barrenetxea</p>	<p>27 ASTELEHENA Egunez ■ Ibañez Iluntzean Yudego</p>
<p>28 MARTITZENA Egunez Garitaonandia Iluntzean Garitaonandia</p>	<p>29 EGUAZTENA Egunez Etxeberria Iluntzean Etxeberria</p>	<p>30 EGUENA Egunez ■ Fernandez Iluntzean Barrenetxea</p>	<p>1 BARIKUA Egunez Yudego Iluntzean Yudego</p>
<p>■ Fernandez: Herriko enparantza,4 Garagartza (Mendaro) 943 756 142</p>	<p>■ Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze) 943 751 638</p>	<p>■ Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) 943 751 384</p>	<p>Urte guztian, gauzez: 22:00-09:00 Esther Mendinueta Berastegui Urkizu pasealekua, 6 (Eibar) 943 820 106</p>

BARREneko harpidedunentzako oharra

Buzoiko **B** pegatina falta bazaizu edo hondatuta baduzu, **BARRE**nen bulegora etorri eta berria emango dizugu.

Banaketa sistema errazteko behar-beharrezkoa dugu zuen buzoiak pegatinarekin markatzea.

Mesedez, ez ezazue pegatina kendu buzoitik. Gure banatzaileek eskertuko dute.



EXPRESS ESKAINTZAK!

**GIEI613322MN
GRUNDIG INDUKZIO GAINA**



- Indukzioa
- Sukaldatzeko 3 eremu
- Duo eremua 28 cm
- Stop & Go funtzioa
- Booster funtzioa
- 9 egosketa-maila

319 €

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

Elgoibarko Baso Biziak taldea sortu dute hainbat herritarrek, bertako basoa sustatzeko asmoz



Naturaz eta gure basoek azkenaldian duten egoera "tamalgarriaz" kezkatuta, herriko lagun talde batek Elgoibarko Baso Biziak elkarte sortu du. Elkarte honen helburua Elgoibarren bertako basoa sustatzea da, landare eta animaliei babeslekua eskainiz eta errekek osasuntsu mantenduz, herritarren bizi-kalitatea hobetzeko eta inguru bizigarriagoa eraikitzeko. Horretarako beraien lan-sistema ere zehaztu dute, eta euren asmoa da jabeek utzitako sailetan edo formula desberdinen bidez erositako lursailetan (bazkide kuotarekin, enpresen laguntzarekin eta entitate desberdinen arteko elkarlanarekin), bertako basoa berreskuratzea eta zaintzea. "Klima-aldaketa guztion ahotan dago, baina gutxik hartzen dituzte hau geldiarazten saiatzeko neurriak", adierazi dute elkartetik. Egoera horren aurrean, lagun talde honek hitzetatik ekintzetara pasatzea erabaki du, sinistuta daudelako bertako basoak mesede handia egiten diola naturari eta herritarren bizi-kalitateari. Baso Biziak Elkarteak dekalogo moduko bat sortu du, bertako espezieen aldeko arrazoiak azaltzeko.

1. Oxigenoa sortzen dute.
2. Klima aldaketaren arrazoi nagusia den karbono dioxidoa atzematen dute.
3. Lurraren geruza aberatsaren arrastrea saihesten dute, euriak eragiten duen higadura murriztuz.
4. Hostoekin kutsatzaileen partikula finak harrapatzen dituzte.
5. Trafikoaren eta, oro har, giza jardueraren zarata moteltzen dute.
6. Lur-irristatzea murrizten dute sustraien adarrei esker lurzorua egonkortuz.
7. Ura xurgatu eta transpirazioaren bidez lehengora bueltatzen dute, airean dagoen hezetasunaren oreka mantenduz.
8. Espezie-bizidun askori babesa eta janaria ematen diote, biodibersitatea sustatuz.
9. Pertsonen aldarte eta osasuna hobetzen dute, odoleko kortisol-maila murriztuz eta estresari aurre eginez.
10. Gure ingurunea edertzen dute.

Elgoibarko Baso Biziak taldeak atek zabalik ditu nahi duenarentzat, eta aurreratu dute udazkenean bazkide-kanpaina bat abiatuko dutela, jendea taldera batzeko. Bien bitartean ondorengo kanal hauetan zabalduko dute informazioa:

www.elgoibarkobasobiziak.org
 Facebook: Elgoibarko baso biziak
 Instagram: elgoibarkobaso.bizi
 Twitter: @elgoibarbb



AURTEN BAI!

Santana ETA **Sanbartolome**

JAIETAKO ALE BEREZIAN

ZURE ENPRESA, NEGOZIO EDO DENDA

JAIK ZORIONTZEN AGERTZEA NAHI BADUZU,

JARRI GUREKIN HARREMANETAN:

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

688 769 657 / 943 743 704



G R E M I O E N GIDA

ARROZTEGIA

Ulazia
ARROZTEGIA ETA ENBALAJEAK
Alibixuri industrialdea, 1-O/ 1-P
943 740 547



ELEKTRIZITATEA

egoluz
ELEKTRIZITATEA S.L.
Andres: 630 957 345
677 512 462
Pedro Migel Umuzuno, 14 behea
20670 ELGOIBAR
Bulegoa: 943 200 697
ego.luz@hotmail.com

ITURGINTZA

ONGI Iturgintza
Pedro Muguruza Etorbidea, 11
ELGOIBAR
Tel: 943 254 522
Faxa: 943 254 523
ongi@ongi.elgoibar.com
www.ongi.elgoibar.com

ARROZTEGIA

iraolagoitia
arroztegia - altzariak - etxe-aldaketak
Kurutz-gain industrialdea, 9
20850 Mendara
943 756 112
636 497 485
www.iraolagoitia.com

LEIHOAK

LODOSO LEIHOAK
SIGMA INDUSTRIALDEA, 223
lodosof@gmail.com
943 743 490

ITURGINTZA

SANTANA
Igor Santana
ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.
Urazandi kalea, 17, behea
Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com

ARROZTEGIA

MAR
ARROZTEGIA
Olaso industrialdea, 17 behea
943 531 471
609 054 978
carpinteriamar@hotmail.com
f

PINTURA

BIOK
dekorazioa
Uparitzaga, 14 - Elgoibar
943 741 552
606 431 120
biok@biokdekorazioa.com

ITURGINTZA

PAGOAGA S.A.
BULEGOA ETA ERAKUSKETA
Pedro Migel Umuzuno, 8
943 740 512
Faxa: 943 743 565
tienda@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com
BILTEGIA
San Antolin, 13 - ELGOIBAR
taller@pagoagasa.com
943 740 279

ARROZTEGIA

Aroztegia Carpinteria
ASIMA
Ermuaranbide, 18 - Elgoibar
687 150 226
650 026 631
636 886 322
943 744 225
asimaaroztegia@gmail.com

ERREFORMAK

ESTUDIOS ARRILLAGA
Erosano kalea, 15 behea - Elgoibar

- Proiektuak eta erreformak
- Sukaldeak
- Gremioen koordinazioa
- Obren zerbitzu integrala

943 744 019
605 713 168

IGELTSERITZA

A.Garate
Era guztietako igeltsaritza lanak egiten ditua
angelmgarate@gmail.com
Santa Ana kalea, 28 behea - 2. zkia
Elgoibar
610 226 651

ARROZTEGIA

Biena S.L.
ARROZTEGIA
Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eu
info@biena.eu
f

